ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA 2007 · 7. ALEA

Oilategitik

2007

www.oilategitik.net

non zer

3 Kantatzea gustokoa dugulako
4 Alkiza, ardoaren ibilbidea
6 Atzo atzokoak
8 Alkizako baserriak
10 Alkizako Jaiak 2007
12 Pedro Manuel Sorarrain
14 Bitxikeriak
15 Joan Irazusta Alkizalete (1668-1772)
16 ESKOLA Alkizako Herri Ikastetxetik
18 ESKOLA Piraten etxera irteera
20 UDALAREN TXOKOA Haurreskolaren proiektuaren historia laburtua
22 Alkizako pilota kronika
24 Felix Otaegi. Artista alkizar batekin solasean
26 Aiztondoko I. Gutun Lehiaketa
28 Bertsotan
29 TOPONIMIA IV Azaldegi eta Sakamidra bailarak
33 Bi anai
34 Joan den urteari begira
39 Udal Hauteskundeak
44 ARTIKULUA Oinak lurrean, burua hegan
46 ARTIKULUA Karlistei begira ikasteko asmoz
48 ARTIKULUA Mali, herrialde behartsuenetakoa
50 ARTIKULUA Mendi lurren inguruko gogoeta
52 ARTIKULUA Unax eta Manex izenak
54 ARTIKULUA 50 urte atzera begira
58 ARTIKULUA Gure piztiak

Argitaratzailea eta koordinazioa: Alkizako Oilategitik K.E.
Tirada: 600 ale.
Lege Gordailua: SS 814/01

Oilategitik aldizkaria doan banatzen da eta ez du bere gain hartzen bertan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

Kantatzea gustokoa dugulako

Oilategik eskaintzen duen leiho honetatik burua ateratzeko aukera eman digutenez, gure burutapenak kontatu nahi dizkizuegu.

Badira hiru urte astero biltzen hasi ginela, asmo xume baten inguruan eta orduez geroztik, gutaz hitz egiten den bakoitzean, herri mailan, koru edo abesbatza titulua ematen digute. Ideia honen inguruan doa burutapena.

Gure asmoa ez da inoiz izan abesbatza formal bat eratzearena, baizik eta kantuzale talde bat osatzearena. Baina ez edozein eratako kantuzaleak, euskaldun kantuzaleak, hori baita kide guztiok txikitandik edan dugun iturria. Nork ez ditu buruan, gure ospakizunetan, mahai inguruan entzun eta abesten genituen Pello Joxepe, Aitorren Hizkuntza Zaharra, Ixil-Ixilik dago, Boga-Boga...

Euskaldunok, beste hainbat herrik bezalaxe, abesteko ohitura handia izan dugu, baina teknologiaren eta ongizatearen gizartearekin batera, hegoaldean bereziki, telebista eta musika ekipoak izendatu ditugu gure ordezkari. Horixe da, gure eskuetan dagoen neurrian, zuzendu nahi genukeena.

Zorionez, euskal lurralde guztietan ez da gauza bera gertatu eta badugu nora begiratu. Iparraldean mantentzen diren hainbat ekimenetan hain zuzen ere hala nola kantu bazkariak, kantu jirak, ... Horretaz aparte, gure inguruan erabat galdu ez diren hainbat ospakizun ditugu eredu: Gabonak, Santa Ageda, Inauteriak, San Martin koplak...

Aipatutakoa aurrera ateratzeko asmoz, dozena bat herrikide elkartzen gera astero eta entsaio formaletaz aparte, 20:30etik 22:00etara bitartean, posible dugunok, errugbizaleek hirugarren zatia deitzen diotena ospatzen dugu Elizegin, Jexuxek hitz egingo balu...

Ez genuke burutapen hau bukatu nahi, herritar guziei gonbidapena luzatu gabe eta entsaioetan zein aurrera eramaten ditugun ekintzetan oso ondo pasatzen dugula azpimarratu gabe **kantatzea gustokoa dugulako** ■

MIKEL GONZALEZ-ETXEBERRI



Alkiza ardoaren ibilbidea

Iñaki Linazasoro-ren "La otra Guipuzcoa" liburuko "Alkiza, la ruta del vino" atalaren laburpena eta itzulpen librea. Ahal izan den neurrian bere idazteko modua errespetatuz.

Autoa bihurka zihoan, zaindutako etxaldeen hormen ondo-ondotik pasatuz, aldapa gora etengabe. Arto eta alpapa ekoizle den goi-lautada txikitxo batera iristean, urrutian garbi-garbi marraztuta dagoen herrixka baten islak ustekabean harrapatzen gaitu.

- Horra hor Alkiza-, zoriontasun turistikoetako kideei adierazten diet, ahotsa harrotuz antigoaleko "cicerone"n erara.

Agerpen pintoreskoa, ibilbidea lehen aldiz egiten zuten, nire adiskideen ahotik ateratzen diren harridura adierazpenez ospatzen da. Hori dela eta ibilaldiko gidari ofiziala izendatzera animatzen naiz.

Orain urte gutxi, oraindik udalerriek elikagai batzuen gaineko zergak eta arielak (arantzelak) ezartzeko ahalmena zutenean, bat-batean , landa bide hau Gipuzkoako "ardoaren ibilbide" bihurtu zen.

Nola liteke –elkarrizketan zihardutenzalantzaz betetako beste herrietako zinegotziek– abarkadun alkizar eskukada gutxi batzuen artean, gure herritar-andanak baino ardo gehiago irenstea …! Ezinezkoa da…!

Bitartean, zisterna-kamioiz osatutako karabana ikusiezinak, mahatsak ematen duen onenaz gainezka, Alkizako Noble eta Leial Hiribilduko udal-alondegi inexistentean jasotzen ziran. Bertakoen erreputazioa, kolokan zegoen …

- Nor bainatzen zen ardotan? – galdetzen dit Eduardok.

- Inor ez. Garai artako alkatea zen, Etxabe baserriko Iruretagoiena abizena eta Rufino izena zuen, jaun buru-argiak asmatutako eskumen trukea besterik ez zen. Alkate-jaun biziak, bere maltzurkeriarekin, herriko zenbait obra aurrera eramateko, agortuta zegoen udal diru-kutxa suspertu zuen.

Ernio mitiko eta ospetsuaren mendebaldeko hegalak babesten duen Alkizako gainera iritsi gera. Distira lasaian murgilduta dagoen ingurua antzematen dugu. Edertasunezko uhinak, iris baketsuak, igurzten dute inguru bakartegia, askatasuna maite dugun eta izadi bikainean sinisten dugunontzat sortua.

Alkizaren apaltasun lasaiak hiru arrazoi eskaintzen ditu nire oda sutsua merezi izateko: kokalekua, Antxietaren erretaula eta alfonbraz estalitako plaza.

"Sedum telephium", "ajuga chamaepytis", "seaecio vulgaris..." eta bestelako belarrez estalitako Plaza Nagusi bat aurkitzeak, gertaera itxura gordetzen du idazlearentzat. Alajaina, galipot tristerik gabe, korritzeko, saltatzeko eta zilipurdiak egiteko prestatua dagoen Plaza-Parkea izatea.

Alkizako eliztarrak, hamar aldiz bidertuz, ederki asko kabituko lirateke San Martin parrokiako elizan. Ulertzekoa da eskola umeek, zalapartatsu eta urduri agertuz, elizkizunetan ozenki abestea. Nolabait kendu beharko dute hotza gainetik, ikaragarrizko gotiko erako gurutzeria-gangapean ...!

Goialde honetako gure ibilbideak, erreferentzi artistiko aipagarria du. Antxieta'tar Joanes eskultore ospetsuaren erretaula bat. Oparo polikromatutako antxietar aldare hau arro agertzen da, hiru estamentutan ezarritako beste hainbeste hornacinatan kokatuak dauden, hamar santuren irudi ederrekin.

Erretaularen basamentua eta sagrarioko ateak, taila ederrak osatzen dituzte, erospen-misterioko gertaerak irudikatuz.

Aldaretxoa sakristiara kendu zen, interes artistiko txikiagoko, Miguel Irazusta herriko artistaren, beste batez ordeztuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldarea eskuratu nahi izan zuen, probintzia-jauregiko kaperan miretsia izan zedin, baina gestioek ez zuten aurrera egin.

Espero dut, nire Alkizar lagunek, hain singularra den arte obrarekiko, dagokion interesa agertuko dutela, kokaleku berezia eskainiz. ■

Atzo atzokoak

Aginagako familia sarasolatarrak:

1. lerroan zutik Pedro, eserita Julia-Jose gurasoak, Bautista, 2. lerroan zutik 1. Antonio, 2. Jose, 3. Maria, 4. Atanasio eta 5. Ramon.

Alkizako festa antolatzaileak:

1. lerroan eserita eta kuzkurturik, bi soinujolerekin Apaiztiko Karlos, Otsamendiko Miel Moises, Arpide-garaiko Jose Martin, Arritzako Jasinto, Otsamendiko Segundo, Peruko Ramuntxo, Urruzolako Pantaleon, Arpidegaraiko Angel, Antzabeneko Juanito, Apaiztegiko Antonio eta Aritzetegaraiko Jose, 2. lerroan zutik Arritzako Juan Jose, Asteasuko txistulariak, Bentzala-txikiko Jose, ?, Etxesagastiko Josekrutx, Garmendiko Benito, Urruzolazpiko Santos eta Etxesagastiko Eugenio.

Arpidegaiko familia beobidetarrak:

1. lerroan eserita 1. Adorasion, 2. Bibiana, 3. Maria Jesus, 2. lerroan eserita Maria Angeles, Maria eta Jose Angel gurasoak, Teodora, 3. lerroan zutik Jose Martin, Martin, Jose, Agustin, Daniel, Angel eta Pepita 12 semealaba

Urrizpeko familia
Letamendia Usandizaga:

Eserita Josepa, Jose Mari, Maria Inazia ama, Juan, zutik Maritxu, Prasku, Bittori eta Dolores zazpi seme-alaba

Tolosako ihauterietan alkizarrak:

Kuzkurtuta 1. Arritzako Modesto, 2. Apaiztegiko Anttonio, 3. Otsamendiko Miel Moises, 4. Etxabe-txikiko Jose, 5. Errekaldeko Miel, 6. Otsamendiko Segundo, zutik l. lerroan, 1-2. Arritzako Juan Jose eta Jasinto, 3. Zumitzetako Markos, 4. Etxabe-txikiko Juan Mari, 5. Apaiztegiko Juan eta 2. lerroan l. Bentzala-txikiko Jose, 2. Apaiztegiko Karlos, 3. Albiztegiko ? eta Urruzolazpiko Santos.

Ikiliko familia
Goenaga Uria:

Eserita Jose Angel eta Beltsora senar-emazteak, zutik Segundo, Maria, Bittori eta Martin seme-alabak

GARMENDIA

XIV. mendean Alkizako lehen dokumentuen arabera bazen Garmendiako Martin Martinez eta, 1771ean familia bakarra ageri bada ere, 1811 ezkero bitan banatu zen baserria, Garmendia Azpikoa eta Garaikoan. Gipuzkoako ondare artistiko historikoan baserri hari buruz oinetxearen hipotesia planteatzen da. Garmendia Azpikoan, 1959an, Koldobika Jauregi eskultorea jaio zen. Bi baserri haietan honako hauek bizi izan dira: Sarobe, Irazusta, Bazterrika, Aranguren, Agirreurreta, Jauregi eta Goenaga abizena dutenak.

GARRO

XIV. mendean Alkizako lehen dokumentuen arabera bazen Garro baserria eta gainera aspaldiko sona du. Gaurko eraikuntza ere XVI. mendekoa da eta baditu arku zorrotzak. Bertako biztanleek XIX. mendera arte Garro abizena mantendu zuten, ondoren, berriz, Madariaga, Otegi, Ugartemendia eta gaur Ruiz-Rodriguez bikotea bizi da.

GOINA (GOENAGA)

Izenari dagokionez Goyena, Goynaga eta Goina bezala ezagutzen da. Lehen Karlistada ondoren Jose Antonio Zuaznabar eta Maria Madalena Aranzabe senar-emazteek eraiki zuten. Bigarren belaunaldian, 1930 aurretik, Inazio Maria Zuaznabar eta Bentzalagako Josefa Ugartemendia Arrutirekin hustu zen. Urruzolakoek borda bezala erabilia 2007arte, Najera eta Bon Perezek erosi eta bertan bizitzekotan dira.

Alkizako baserriak

IGARANZABAL

Igaran errota 1563 ezkero datatu-rik dago, handik eratorri zen Iga-ranzabal baserria eta, 1731n, lehen aldiz agertzen da, errotaren antzera izen anitzekin: Ianzabal, Iaranzabal, Ieranzabal eta Igaran-zabal esateko. Bertako jabe eta maizterrak honako hauek bederen ezagutzen dira: Ezkamendi, Urru-zola, Mendizabal eta gaur Irureta-goiena-Mendiola sendia bertan bizi da.

IKILISAGASTI

Nahiz eta historian zehar Gillisa-gasti bezala ageri, 1558an, lehen aldiz Ikilisastiko Maria da lehen dokumentatua. Bertako jabe eta maizterrak honako hauek ezagu-tzen dira: Ikilisagasti, Arpide, Otaño, Irazusta, Aranguren, Paga-dizabal, Pellejero, Ezama eta gaur Goenaga Uria bertan bizi da.

INTXAURRANDIAGA

Baserriak Insaurrandiaga, Insau-randiaga eta Intxaurrandiaga idaz-kera ezberdinak hartu ditu doku-mentuetan. Nahiz eta XIV. mendean Intxaurrandiagan abizen bereko Pedro bat bizi, Joan Bautis-ta Intxaurrandiaga harginak eraiki zuen gaurko eraikuntza dotorea, XVIII. mendean. Bertako seme izan ziren Joan Bautista eta Joan Elias hargin eta eskultoreak. Bi etxebizitzetako abizenak, berriz, honako hauek: Intxaurrandiaga, Pagadizabal, Elola, Urruzola, Ira-zusta eta gaurko Urruzola eta Sorarrain.

Alkizako Jaiak 2007

Hemen dira, hemen dira berriro. Ez dute hutsik egiten. Urtero-urtero, oporren ostean, egunerokoko martxara egokitzen laguntzeko, hemen izaten dira Alkizako jaiak, Alkizako festak. Aldizkari hau esku artean duzuenerako, lauzpabost egun besterik ez dira geratuko urte guztiko egun desiratuenak iristeko. Aurten aldaketak izango dira, ez baitira betiko moduan festak jarraian izango. Horretaz, prestaketa lanen inguruan, eta beste zenbait kontuz hitz egiteko, hilabeteetan, hainbat lagunekin batera, herriko jaiak prestatzen jardun duten bi lagunengana jo dugu: Xabier eta Unai.

Esaguzue lehenik eta behin, zeintzuk diren aurtengo jaien berrikuntza nagusiak.

Irailaren 14an, ostirala, mozorro eguna jarri dugu. Ez dakigu funtzionatuko duen. Jendea animatzen bada, etor dadila mozorrotuta. Agian, sariak egongo dira.

Eta zer gertatzen da egunen banaketarekin? Zergatik bi asteburutan?

Gauza gehiegi zeuden egun gutxitan pilatuta, eta horrela hobeto banatuta daudela uste dugu.

Zenbat urte daramazue zuek jaiak prestatzen?

Hamabi urte. Lehen Udala arduratzen zen.

Ba al duzue laguntzarik?

Gutxi. Antolaketari dagokionean, gutxi. Gero, festetan laguntza handia izaten da gauzak prestatzen. Bakoitzak bere eginbeharra du. Bat bertsolariez arduratzen da, bestea sagardo dastaketaz, bestea pilota partiduez... Bakoitzak nahiko finkatuta du zein den bere ardura, eta ez dugu arazorik izaten.

Zer moduz portatzen da Alkizako Udala?

Oso ondo. Sekula ere ez digu oztoporik jarri, ez diru kontuetan, ez eta beste ezertan ere.

Izango al da txosnarik aurten ere?

Noski baietz. Iaz utzi genuen txosnaren ardura guk. Orain gazteek hartu duzue lekukoa. Gu ere oraindik gazteak gara, baina...

Zein izaten da ekitaldirik arrakastatsuena?

Jende gehiena bertsolarietan eta herri kiroletan mugitzen da. Iaz arrakasta handia izan zuen Asto lasterketak. Barrikotea eta sagardo dastaketa ere oso gustukoak dira.

Gauetako giroa asko jaitsi da jende kopuruari dagokionean, baina giroari ondo eusten diogu. Atzean geratu dira Akelarre-rekin izaten ziren kotxe ilarak.

Garestiak al dira Alkizako Jaiak?

Hori Peperi galdetu beharko zaio, kontabilitatea hark eramaten baitu. Gure ustez, ez dira oso merkeak, baina ahaleginak merezi duelakoan gaude, festa on batzuk antolatzeko, eta denen artean ondo pasatzeko.

Badakigu herrian 17-18 urteko gazte koadrila handi samarra garela. Laguntzen al dugu?

Bai, zalantzarik gabe. Urtetik urtera gainera, gehiago egin beharko duzue. Guk dagoeneko... Nik behintzat (dio Unaik) badaukat uzteko gogoa, bi haurrekin ezin baitiot lehengo martxari eutsi.

Guk eskatu genituen kontzertuak sartuta daude programan. Zer iruditzen zaizkizue?

Oso ondo, ez ditugu ezagutzen baina... Denen gustuko ekintzak jartzen ahalegintzen gara, herriko adintalde guztiak pozik egon daitezen.

Etorkizunari begira, nola ikusten dituzue Alkizako festak?

Hori guk zuei galdetu beharko genizueke. Herriko jaiak gainbehera doaz leku gehienetan. Gure ustez, egunez jai giroak berdintsu jarraituko du; gauez, berriz, jaisten jarraituko du. Halere, herrikoak geratzen bagara, nahikoa eta sobera izango da.

Zergatik gertatzen ari da hori gauetan?

Orain giroa tabernetan dagoela uste dugu. Lehen, Belauntza, Altzo, Albiztur, Zizurkil, Aduna, herri askotako festetara joaten ginen. Gazte-festek izugarrizko arrakasta zuten. Plaza-giroa handiagoa zen. Herri txikietako festa lehen zen Plazan zegoen giroa. Plaza-giroa galdu denean, akabo. Jendeak uko egiten ari zaio herri txikietako festetara joateari, pentsatzen baitu horietan ez dela ezer ere egongo. Baserritar giroa galdu egin da erabat. Orain "ghettoak" daude: Oialume, eta abar.

Beraz, herritarrok, badakizue, ondo-ondo pasa, asko edan eta gutxi gastau.

Xabier eta Unai duela bi urteko herri kiroletako saioan. Unaik irabazi zuen. Aurten errebantxa izango da.

Herritarrak aizkolariak eta harri-jasotzaileak ikusten.

Sagardo dastaketa.

Igor eta Aitor.

PROGRAMA

IRAILAK 7 / Ostirala

16:00 Haur jolasak festei hasiera emanez
21:00 Barrikotea
Ondoren Laket taldearen eskutik erromeria.

IRAILAK 8 / Larunbata

10:30 Herriko umeentzako txirrindulari lasterketa eta toka txapelketa
12:00 Meza Nagusia
14:00 Jubilatuen bazkaria Otsamendi jatetxean
Ondoren Beteranoen arteko XVI. Pilota Txapelketaren finalak.
23:00 Herri kirol saioa: aizkolari eta harri-jasotzaileak.
Ondoren Saioa eta Alabierren eskutik erromeria eta atsedenaldian gau jolasak

IRAILAK 9 / Igandea

10:00 Meza Nagusia.
10:15 Pilota Partiduak:
Gazteen arteko XVII. Txapelketaren finalak.
16:00 Pitxoi tiraketa Erniope elkarteak antolaturik.
17:00 Asto lasterketa herrikoia mozorrotuta.
Ondoren Gorriti eta beraren animaliak.
Arratsaldean Kulki-ren jolasak.
Gauean Ansorregi eta Larrañagarekin erromeria.

IRAILAK 14 / Ostirala (Mozorroen eguna)

17:00 Gazteen arteko pilota partiduak.
Ondoren Toka txapelketa herrikoia.
23:00 Bertsolari Jaialdia: S. Lizaso, A.M. Peñagarikano, A. Egaña, M. Lujanbio, J.M. Irazu, A. Arzallus.
Gaijartzailea: Unai Elizasu.
Ondoren Agurtzane eta Ion Elustondoren eskutik erromeria.

IRAILAK 15 / Larunbata

18:00 Herri kirol saioa herriko gazteen artean.
Ion Zabala eta Izaskun Mendizabal zirenen oroimenez.
Ondoren Sagardo dastaketa izango da denentzat.
20:30 Herri afaria Ostatu jatetxean.
23:00 Dark Avenue, Izeba Pilarren hilobak eta Nunbait taldeen kontzertua.

SONIA ARTUZAMONOA

Pedro Manuel Sorarrain

Denok dakizuen bezala aurtengo apirilaren 7an gure artetik joan zaigu Peru Baserriko Pedro Manuel Sorarrain Amonarriz, 86 urte zituela.

1922garren urtean etorri zen Zizurkildik Alkizara bere familiarekin, 2 urte zituela, bere aitak Peru Baserria erosi eta gero. Bere ume eta gaztetako urteetan eskolara joatea eta baserriko lanetan aritzea tokatu zitzaion, hala ere bera oso gustora izaten zen; basoko lanak eta egurrekin lana egitea asko gustatzen baitzitzaion (kirtenak, eskuareak, txondarra egitea eta abar.)

18 urtekin gerrara joatea tokatu zitzaion: 2 urte Afrikan eta 5 hemen pasa zituen. Gerran denboraldi hau pasa eta gero Peru baserrira bueltatu zen eta handik urte batzutara, bere emaztea izan den Juanita etorri zen, 13 urterekin Perura neskame. Bertan ezagutu eta gero ezkondu egin ziren. 57 urte elkarrekin pasa zituzten eta honen ondorioz 16 seme-alaba izan zituzten eta iloba mordoa. Ezkondu eta gero ere bere bizia beti murgildu da baserriren inguruan: baserriko lanak, ganaduak, txondarra, basoa...

Basoko lanetan ibili ohi zen gustora eta beti kontatzen zuen; behin basoan lanean ari zela hanka puskatu zuela eta ahal zuen bezala oinez etorri zela etxeraino eta gero gurdi gainean eraman zutela medikuarengana.

Azkeneko urte hauetan "Oilategitik" aldizkarirako sarri egin zaizkio elkarrizketak eta egia esan beti egon da guri laguntzeko prest eta beti zuen anekdotaren bat guri kontatzeko. Hauek dira hauetako batzuk:

Pedro Manuel etxe ondoko soroan idi parearekin.

Pedro Manuel Zelatunen, bere aita zenaren omenaldi-plaka jaso zuenean.

Pello Joxe Aranburuk egindako elkarrizketa baten zati bat:

Alkizan azkenik erre edo hustu egin diren baserrien zerrenda bat egingo zenuke?

Arritza taa erretzen ikusi izkit Litsaso bi bizitzak.

Litsaso bai e!

Bai

Ze urtetan eo? Hola arrasto bat.

Ua.

Ez da inun azaltzen noiz erre zan.

Esango itpa, nee ama il uan "treintan", taa nee ama ta Litsasoko Andrea, oi lanbata uan, lanbat atsaldia erre uan, nee ama ta Litsasoko Andrea Tolosatik etxea traturik biyak alkarrekin, ta kia ta ikusten zuela kia ta Alkizan etxia erretzen emen zeola, ta Lizarzelai zala.

Uste!

Lizarzelai zala ta beste batzuk Litsaso zala, ta ua argi etorri Andrea, ta arek emendik zioazen eskolaumei galdetu topo eittian, Aranan, ea Plazatik ikusten ote zan, ta bai ikusten zala. –Guria den, Litsaso den, Litsaso den-. Litsaso, orden, mila bederatzereuntaaa ogeitaa zazpi edo. Au besteik ez emen zin esan, umeak eta attona, attona zaarra deskuidatua izango uen.

Imanol Lizardi eta Jose Mª Aranzabe txondarrari buruzko elkarrizketan kontatutako anekdota:

Eta zer suposatu zuen bukaera honek baserrietako ekonomiarentzat?

Honen inguruan anekdota bat kontatu behar dizuet. Gure etxean 11 litroko marmita genuen, eta Otsamendiko Segundori eramaten genion, eta hark bere arrebari, saltzeko. Litroa 2 pezetatan saltzen genuen, beraz, 11 litrorekin 22 pezeta jasotzen genituen. Nire anaiak, berriz, fabrikan lanean egun osoa pasa ondoren 9 pezeta baino ez zituen eskuratzen.

Horrelako anekdota asko kontatu ohi izan zituen, beti hitz egiteko eta laguntzeko prest. Baino aurtengo San Martinetan ezin izango dugu esan "Peruko Pedro Manuelek erretako gaztainak jan ditugu", baina bai esan dezakegu: "Goian Bego Pedro Manuel".

Jose Mari Aranzabe

Bitxikeriak

Maialen Sorarrain

Izaro Iruretagoiena

Oihana Fernandez de Larrinoa

Aratz Larrauri

Alkizan 2006ko abenduaren 31n, 322 biztanle zeuden erroldatuta, aurreko urtean baino bi gehiago, azken urte hauetako gorantzako boladari jarraituz. Hau horrela izateko, 14 alta, horietatik 4 jaiotza, eta beste 10 kanpoko herrietatik etorritakoak izan dira. Bajak, berriz, 12: 4 heriotza eta 8 beste herrietara joandakoak. Adinaren arabera, honela gelditzen da errolda:

0 – 20 urte bitartekoak (%22,05):
gizonezkoak, 41
emakumezkoak, 30

21 – 40 urte bitartekoak (%29,50):
gizonezkok, 48
emakumezkoak, 47

41 – 60 urte bitartekoak (%28,88):
gizonezkoak, 54
emakumezkoak 39

61 – 80 urte bitartekoak (%14,60):
gizonezkoak, 28
emakumezkoak, 19

81 urtetik gorakoak (%4, 97):
gizonezkoak, 10
emakumezkoak, 6

GUZTIRA: 181 gizonezko eta 141 emakumezko

JAIOTZAK HAUEK IZAN DIRA:

- Oihana Fernandez de Larrinoa Ibarbia. Muñozabal etxekoa
- Izaro Iruretagoiena Mujika. Etxaburua 1, 2. ezkerra etxekoa
- Aratz Larrauri Mateos. Santiago Ermita bidea 3 etxekoa
- Maialen Sorarrain Gil. Etxaburua 1, 1 ezkerra etxekoa

HERIOTZAK, BERRIZ, HAUEK DIRA:

- Joxe Ramon Eizmendi Saralegi. Agiña baserrikoa.
- Maria Angela Goenaga Goenaga. Saletxe baserrikoa.
- Jose Sarasola Sarasola. Agiña baserrikoa.
- Mara Franziska Uzkudun Ugalde. Aizmendi-goikoa baserrikoa.

PELLO JOXE ARANBURU

Joan Irazusta Alkizalete (1688-1772)

Euskal letretan Joan Irazusta Hernialdeko erretoretzat ezaguna izan arren, inork gutxik aitortu dio Migel Irazusta eskultorearekiko ahaidetasuna eta Alkizan jaio izana. Aita, Joan Bautista Aginaga baserrian jaio eta herriko arotz-hargina zuen, ama, berriz, Leteko Katalina Alkizalete.

Ezkondu eta Mendia etxean bizi zirelarik, aipatu bere gurasoek lau seme-alaba eduki zituzten eta zaharrena Joan, 1688an, San Martin parrokian bataiatu zuten. Bere senideak, Maria Josefa Etxabeko herriko notarioarekin, Martin Hernialdeko Igor baserrira eta Martin Jose Errezilera ezkondu ziren, Jon, ordea, Pedro Aguado Iruñeko gotzainak, 1714an, aitortzak eta sermoiak egiteko baimendu zuenez, ordurako apaiz zen.

Joan erretore Hernialden, 1716-1752

Hernialdeko erretorea hil zenean, 1716an, bi hautagai aurkeztu ziren, Domingo Montes bertako semea eta Joan alkizarra. Hauteskundeak kanpokoak irabazi zituen. Hernialden egin zituen hiruzpalau ekintza nabarmenduko dira hemen.

- Parrokiako bi alboetako aldareak bere garaian eraiki ziren
- Hilerria ere urte haietan egin eta gorpuak han ehorzten ziren
- Gero areagotuko zituen ondasunen pilaketari ekin zion, ahaideen herentzien bidez, esaterako, Alkizako Garmendia eta Katalandegi.
- Bere dotrinak lehen argitalpena 1739an izan zuen, handik zetorkion izena ere: Hernialdeko erretorearen dotrina. Gotzainak, 1748an, zazpi hilabetetan zigorturik, kaputxinoen komentuan eduki zuen. Ez da azaltzen arrazoirik.

Joan erretore Alkizan, 1752-1772

Herriko erretorea eta Joanen amaren anaia, 1746an zendu zenean, hiru hautagai aurkeztu ziren Alkizan: Hernialdeko erretorea eta Antzietako Domingo Roteta, biak alkizarrak eta Asteasuko Pedro Rekondo. Sei urtetako auzien ondoren, Erromako erabakia Joanen aldekoa suertatu zen. Bere erretoretzak 1752tik 1772 arte iraun zuen.

Urte haietan, Alkizako elizan hobekuntza nabarmenak egin ziren: zoru osoa berritu zen, sepulturak, harlanduzko erdiko pasabidea, gizonezkoen eserlekuen azpiko zorua (2000ko berrikuntzan desagertuak), korupeko arkua eta zurezko zortzi aulkiak esaterako. Santiago ermitarako bidean, 1762-1763 urteetan, guruzbidea tailatu zuen Martin Karrera arkitektoak.

Joan Irazustaren dotrina, 1739-1939

Euskal Herriko Eliz Barrutietan euskaraz dotrina ugari argitaratu ziren, 1561-1740 urteetan. Joan Irazustak, 1739an, Asteteren bere itzulpena egin eta hark berrehun urtetan berrogeita hamar argitalpen bederen izan zituen, gehienak Gipuzkoan. Urte haietan eliztar ugarik buruz zekiten, alkizarrek barne, nahiz eta ez jakin dotrina haren egilea herriko seme bat zela.

Itzal handiko erretore aberatsa

Hori argien bere testamentuak frogatu zuen. Herriko notarioa koinatua izan arren, kanpoko notario batekin gauzatu zituen bere azken gogoak. Hernialdeko Igor baserriko ilobei utzi zizkien ia ondasun denak. Ondasunen artean Eleizegi Garaikoa, Garmendia, Gilisagasti, Mendia eta Urruzula Azpikoa bost baserriak eta dirutan kopuru handiak pilatu zituen handik eta hemendik, gehien bat herentzien bidez. Hori bai, Alkiza eta Hernialde bi herrietan mezak emateko kaperautzak fundatu zituen.

Aita Larramendi baino bi urte lehenago jaio eta sei urte beranduago hil zen Irazusta, beraz, biak oso garaikideak izan ziren. Larramendik, 1729an, bere gramatika ospetsua idatzi ondoren, Irazustak dotrina itzuli zuen euskarara. Horretarako, ordea, ez zuen Larramendiren Hiztegi Hirukoitza erabili, 1745ekoa baita.


H-8678 | R-36293 ITU 28937

DOCTRINA

Cristiana

AITA GASPAR ASTETE IESUITAC
EREDEZAZ COMPONDUA
IPUIZUAN EUZQUERAZ

D. JUAN DE IRAZUSTA

Erretore Hernialdecoac ceha dan provincia Guipuzcoacoan, eta ahaditu ciou Encarnacioco eta Eucaristiaco Misterioen esplicacioac baita eraCONFESIO onaren condicioac eta ecio Pedero, Espirantzaco eta Cat... doctrinac.

Azala. 1800.eko edizioa


12

gure Jauna eta Jaungoicoa. †

G. Cergatic ciñatzen cerade becoquian?

E. Libratzeagatic Jaungoicoac pentzamentu gaiztoetatic.

G. Cergatic aoan?

E. Libratzeagatic Jaungoicoac itz gaistoetatic.

G. Cergatic bularretan?

E. Libratzeagatic Jaungoicoac obra eta deseo gaistoetatic.

G. Cer da santiguatzea?

E. Eguitea gurutze bat escuico escuaren beatz biaquin, becoquitic bularretaraño ta sorbalda ezquerrecotic escuicoraño deitzen zaiola Trinidade Santisimoari.

G. Eguin ezazu nola?

E. Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean. † Amen Jesus.

G. Noiz eguin bear dezu zeñale au?

E. Obra onen bat aitzen dan guztian, e lo arquitzen naicenean necesidade

Obraren orrialde bat

Gipuzkoako apaiz euskal idazleen artean, katebegi baten eginkizuna bete zuen Irazustak: Otxoa Arin, Irazusta, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos, Gerriko, Agirre... Joan Irazusta idazle apala, baina, garbizale aurrekoa eta goiztiarra izan zen. Gipuzkoa osoan berrehun urtetan bere dotrina buruz ikasi zuten ia eliztar guztiek. ■

Jesuitaren itzulpena gaitzetsiz, hauxe gehitu zuen Joan Izastuaren obraz:

"... que no puede imprimirse con ese nombre, sin que luego lo mientan los bascongados, a lo menos acá en Guipúzcoa, porque ya tienen modernamente traducido el P. Astete por el Rector de Hernialde, y haviendose acabado la impresión 1ª, ha echo otra segunda, y en los lugares y casas saben el Astete en bascuence, y no tiene más defecto esta traducción de Hernialde que no ser tan limpio como pudiera su bascuence".

eskola

Zortzi urtez Alkizako eskolan ibili eta gero zaila egiten zait Zizurkilera joatea.

Alkizan urte asko pasa dut eta lagun asko egin ditut, nahiz eta askotan haserretu. Eskolan momentu txarrak pasa ditut, haserretzean eta abar eta onak ere, batez ere jolas orduetan.

Maisu maistrak ere ez dira gurekin ondo portatu, esate baterako Juan Carlos, Olga eta joan direnak ere bai, Iraultza.

Irteera asko egin ditugu, niretzat politena Candanchura eskiatzera egin genuena izan zen. Albizturko lagunekin joan ginen, nik bederatzi urte nituela. Akuaparkera ere joan gara urte honetan eta ederki pasa dut. Zizurkilen ere lagun asko egin ditut eta hara nihoanean lagunak edukiko ditut. Horri ez diot beldurrik, beldur gehiena ematen didana janaria da, Otsamendin bezala ez baitugu bazkalduko. Maisu maistrengatik ez naiz kezkatzen Alkizan ohituta bainago. Etxeko lanetan ere ez naiz kezkatzen Alkizan ere asko jartzen dizkidatelako.

Istripuak ere eduki ditugu. Igor askotan erori egin da eta atenditua izan behar izan du.

Eskolan gauza barregarriak eta bitxikeriak gertatu izan zaizkigu. Adibidez, behin Haritzek kaka egin zuen eta bukatzean paperik ez zuela konturatu zen eta denok parrez lehertu ginen. Niri ere gertatu zait bitxikeriarik. Txikia nintzela, Piraten Etxera joan ginen eta bertako komunean entzerraturik gelditu nintzen.

Paseora ia ez gara joaten eta guri asko gustatzen zaigu. Soinketa ere gutxitan egiten dugu. Jolas ordutan pilotan jolasten gara. Gure eskolan dutxak daude baina ez ditugu erabiltzen.

Niretzat Zizurkilera goazen alde ona bederatzi eta erdietan sartzen garela da. Niri ustez Zizurkilera goaz gure eskolan gu maila bakarrekoak garelako eta nahi nuke hurrengo urtean Alkizakoak Zizurkilera etortzea antzerkia egitera.

Seguru ez dagoela munduan Alkizako eskola bezalakorik. ■

Alkizako eskola honetan hamar urte pasa ondoren Villabonako Erniobe eskolara noa DBH egitera. Han ez dakit zer moduz pasako dudan, baina ondo pasatzea espero dut.

Alkizako eskolan oso ondo ibili naiz eta oso lagun onak egin ditut, lagun minak. Eskola honetan momentu txarrak eta onak pasa izan ditut, baina gehienak onak dira. Hoberena eskurtsioetara joatea izan da, surf egitera, akuaparkera, eskiatzera, lo egitera eta abar. Beste herrietako lagunekin joan gara eta haiekin oso ondo pasatu dugu. Bestalde urtero, ikasturtean zehar ikasitako antzerkiak antzezten ditugu, lehendabizi Albiztur eta Zizurkilgo eskoletan eta gero herrian gure guraso eta lagunen aurrean. Aurten "Pelukaren komeriak" izenekoa egin dugu.

Eskolako hamar urte hauetan bitxikeri asko bizi izan ditut eta horiekin parra asko egin ditugu. Egun batean oilo bat sartu zen eskolako dutxetan eta guk busti egin genuen. Beste egun batean Peruko Aitorrek harri bat bota eta Juan Carlosen kotxeko kristala jo eta puskatu zuen, a ze parrak bota genituen!!!!

Eskola honetatik maisu eta maistra asko pasa dira. Gehienekin ondo konpondu naiz, baina ez denekin.

Hurrengo urtean Villabonara joan beharko dudalako ez nago pozik, baina ezta triste ere, ni bezala, zaharrago diren guztiak joan dira eta. Nik nahi dudana lagunak egin eta Alkizan bezala ondo pasatzea da. Haiekin batera eskolara gustura joatea, hango ikasgaiak zailak ez izatea eta asko ikastea nahi dut. Hango ikasteko modua ezberdina dela badakit eta modu horretara ondo egokitzea espero dut. Ea suertea dudan eta dena ondo doakidan.

Gauza onak baditu eskola hark baina txarrak ere, goizago jaiki behar dut, gehiago ikasi eta jolas orduak motzagoak dira. Gainera Alkizako frontoia hangoa baino hobea da. ■

Alkizako Herri Ikastetxetik

Alkizako eskolan zazpi urte eman ondoren pena pixka bat ematen dit Zizurkilera joatea. Eskola honetan oso ondo pasa dut, lagun asko egin ditut eta denak oso jatorrak dira eta oso ondo pasatzen dut beraiekin jolasean.

Gogoratzen naiz oilo bat sartu zela eskolan eta dutxetan eduki genuela. Denbora osoan bustitzen ibiltzen ginen. Beste gauza batez ere gogoratzen naiz, Aitor Perukoak eta bere lagunak jolasten ari ziren harriekin. Aitorrek harria bota eta Juan Carlosen kotxearen kristalari jo eta kristal guztia puskatu zen.

Gauza txar batzuk ere gogoratzen ditut. Zezenetan jolasten ari ginela erori eta ebaki bat egin nuen. Gero etxera iritsi nintzenean Asunzionera joan nintzen eta puntuak jarri zizkidaten. Beste gauza bat ere gogoratzen dut. Jokinek eskua puskatu zuen parkeko egurrezko katxarrotik erorita. Eskurtsioak ere egin ditugu. Aurten eskiatzera joan gara, Arantzara lo egitera ere joan gara eta surf egitera ere joan gara.

Hurrengo urtean Zizurkilen egongo naiz. Zizurkilera joateak abantaila baditu, astean hemen baino ordu erdi gutxiago egiten dute. Niretzat desabantaila jangelan bazkaldu beharko dudala da, etxean bazkaltzen ohituta nagoelako. Zizurkilen gehiago ikasiko dut nire adineko lagunekin egongo naizelako eta lo gehiago egin ahal izango dut. Baina pena ematen didan gauza garrantzitsuena lehen hezkuntza nire herrian ez bukatzea da. ■

Alkizako eskolan oso ondo pasa dut eta gainera hemen elur gehiago egiten du. Beti hemen ibili naiz eta orain ez dut Zizurkilera joan nahi. Alkiza uzteak pena handia ematen dit. Hala ere joan beharra daukat eta espero det lagun onak izatea. Esan dutenengatik gehiago ikasten da baina nik egundoko tristura daukat hemendik alde egiteagatik.

Hemen lagun asko dauzkat eta Zizurkilen ere lagun gehiago egitea espero dut. Han Enekok gutxiago burlatzea espero dut, beste gela batean egongo delako eta espero dut hango lagunek gutxiago burlatuko didatela.

Alkizako eskola bukatzen dugunean, azken egunean, denei agur esango diet eta Zizurkilera goazenean pixka bat lotsatuta egongo naiz. Alde onak ere baditu, han 9,30etan sartzen dira eta denbora gehiago dugu bazkaldu eta gero jolasteko eta arratsaldean ordu eta erdi bakarrik klasean.

AGUR ALKIZA!!! ■



Hainbeste urte hemen pasa ondoren orain Zizurkilera goaz. Pena pixka bat ematen dit, eskola txiki honetan eman baititugu urte gehienak. Txikia nintzela, eskolan lagun asko ginen baina apurka, apurka lagunak joaten hasi ziren. Txikitan futbolean ibiltzen ginen eta ederki pasatzen genuen.

Irteera asko egin ditugu. Niri akuaparkera joatea gustatzen zait. Irteera horretan oso ondo pasatu dut eta Asteasuko lagunak egin nituen eta txirrista handitik eta gehiagoetatik bota ginen. Txirrista handitik hamar aldiz baino gehiagotan jaitsi nintzen. Txikitan Piraten etxera joan ginen, azken urte honetan bezala, eta pixka bat beldurtu egin nintzen, piraten arropa bitxiekin, baina bestela oso ondo pasa nuen.

Urtero bezala eskiatzera ere joan izan gara eta ez dakit Zizurkilen joango garen. Ni bi aldiz joan naiz, lehen aldia Albizturkoekin eta aurten Asteasukoekin. Niri Albizturkoekin joan ginenekoa gehiago gustatu zitzaidan, gazte aterpean ederki pasa nuen eta. Azken egunean pista gorritik jaitsi nintzen eta ia ederra hartu nuen.

Orain gela txiki batetik gela handiago batera goaz. Jolas orduetan ume gehiago izango gara. Nik ez dakit zein maistra tokatuko zaigun baina espero dut jatorra izatea.

Agur eskola maitea !!! ■

eskola

Alkizatik atera ginen eta segituan ailegatu ginen, maletak utzi eta hamaiketakoa jan genuen.

Gero taldetan sakabanatu gintuzten eta gure gelara joan ginen oheak aukeratzera.

Guzti hori egin eta gero bazkaldu egin genuen eta jolasten ibili ginen

Ondoren bertako plazan meriendatu egin genuen

Berriz ere aterpera joan eta afaldu egin genuen. Ondoren gaubela egin genuen, primeran pasa genuen eta farra asko egin.



Azkenean altxorra piraten barkuan zegoen, zoragarri pasa genuen barkua gidatzen eta pirataz mozorrotzen.

Piraten etxera irteera

Arratsaldean Pasai Donibanera joan ginen barkuan ibiltzera, buelta ederra emanez.

Ohera joan ginen eta lo egin genuen.

Hurrengo egunean, gosaldu egin genuen eta altxorraren bila ibili ginen piratez margoturik.

Gero bazkaldu egin genuen, jolasten ibili ginen eta azkenik Alkizara bueltatu egin ginen.

Haurreskolaren proiektuaren historia laburtua

Lehenik eta behin gure proiektuaren historia txikia gogoraraztea mereziko lukeelakoan gaude. Honez gero lau urteko ibilbidea dauka kontuan hartzen badugu indarrean dagoen Haurtzaindegien plangintza martxan jarri zenean, Alkizako Udaletik mugitzen hasi ginela gure herrian bat irekitzeko. Honenbestez, gurasoekin bildu ginen eta gure interesa jakinarazi genion Administrazioari. Horren ondorioz gure asmoa formalki adierazi genuen eta Partzuergoak 2003ko abenduko zerrendan sartu zigun.

Hortik aurrera haurtzaindegiaren kokapena eta izan zitekeen lokalaren egokitzapenaren proiektuaren lanekin hasi ginen. Horrela, Alkizako Eskolaren beheko solairuan jartzea erabaki genuen, aukera zuzenena zelakoan eta halaxe adostu genuelako eskola berarekin (guraso eta irakasleak, Eskola Kontseilua, Hezkunta Delegaritza). Ondorioz, lokal hori egokitzeko zein obra mota egin behar zen aztertu genuen eta udal teknikariak (aparejadorea) 2004 urtearen erdirako proiektua egina zeukan eta berriro eskolako eragileekin hitz egiten hasi ginen iradokizunak jasotzeko, baita batzuk jaso ere.

Bide batez, inbertsioa ordaintzeko dirulaguntzak eskatu genituen eta EREINek dirulaguntza esleitu zion Udalari helburu horretarako. Erein programa eratzen zuen maiatzaren 7ko 100/2002 dekretuaren babesean eskatu zen eta **2004ko azaroaren 2**ko Landa Garapeneko Zuzendariaren Ebazpen bidez eman zitzaigun dirulaguntza. Aurkeztu zen proiektuaren inbertsioa 41.760,00 eurotakoa izan zen eta %65 eman ziguten (27.144,00).

Exekuzio epea printzipioz, Erein programaren barruan 2005ko abenduaren 31koa zen, eta luzapenak eskatu ditugu 2005 eta 2006 urteetan, azkenik eta programa bukatzen zelako **2006ko irailaren 15ean** dirulaguntzara errenuntziatu behar izan genuen arte.

Bitartean, **2005eko uztailean**, Xabier Otaegik Alkizan bertan udal ordezkariekin bildu zen eta lokala bisitatu zuen, dena ondo bideratuta zegoela konfirmatzeko, eta aurrera egiteko erabaki formala hartu genuen (adibidez orduan Partzuergoan sartzeko prozesurako dokumentuak eskuratu genituen, Gasteiztik matrikula orriak eta gurasoei informatzeko foiletoak jaso genituen, e.a.).

Zoritxarrez, bitartean ere, Alkizako Eskolan, hasierako erabakia, hau da, beheko solairua haurtzaindegirako uztearena, zalantzan jartzen hasi ziren, aurrematrikula datuak ikusita, eta espazio beharrei buruzko aurreikuspenak kontuan harturik. Eskola kontseiluan gurasoek, eta irakasleek ere, beraien ardura azaltzen hasi ziren ordura arte bertako ikasleek zeuzkaten baliabide batzuk (tailerra, ordenadore gela, irrati txokoa, irakasleen bulegoa, e.a.) egoera horretan berkokatzeko zailtasunak aurreikusita. Gero azalduko dugun eran, eskolari dagokiona aztertzerakoan, arazo hau nolabait konfirmatu da Hezkuntza Delegaritzak Alkizako eskolaren hazkundeari aurre egiteko asmoz eraikina osoa erreformatzeko hartu duen konpromisoa ikusita (2006ko maiatzaren 11ko bileran).

Berplanteamendu honen ondorioz, beste lokal edo kokagune bat aurkitzeko lanari ekin genion. Hainbat aukera aztertu eta gero, lokal bat eskuratzeko hainbat saio egin genituen (batez ere herriko plazan kokatuta daudenei begira: eskolaren aldamenean dagoen lokal pribatu bat erostea, edo Elizarena den kultur etxearen beheko plantan lokal baten permuta edo alokairua) baina alferrik. Honek aukerarik gabe uzten gintuen, eta tarte baterako haurtzaindegiaren proiektuarekin aurrera nola egin jakin gabe aurkitu ginen. Dena dela, herrian zegoen eta sentitzen zen beharra berriki baieztatu genuen Agenda XXI plangintzarako garai horretan egin genituen herri batzarretan.

Beraz, behar honi erantzuteko, Udalak eraikin berri baten sustapenaren aukera aztertzeko premia ikusi zuen. Horrelako erabaki baten arrisku eta arazoez ondo jabeturik, jarraitzea erabaki genuen, eta 2006ko hasieran udalari lokala bermatzen zion lur zati baten adjudikazioa bideratu zen. Eraikin berri honen lehen solairua Udalarentzako izateko baldintzarekin, haurtzaindegia bertan kokatzeko bidea irekitzen zitzaigun.

Eraikin berria martxan ikusita **2006ko maiatzean**, berriro X. Otaegirekin kontaktuan jarri ginen Partzuergoak oraindik gurekin kontatzen zuela ziurtatzeko, eta honek baietz esan zigun eta berriro biltzeko hitzordua bilatzeko geratu ginen. Ziurtasun horrekin, proiektuarekin aurrera egin genuen eta herriko jende interesatuarekin bildu ginen (2006ko maiatzaren 18).

Azkenean, X. Otaegirekin elkartu ginenean **2006ko azaroaren 9ko** bileran, gure harridurarako, eskaera

Gela nagusia prestaketa lanetan.

ofizial bat egiteko beharra azaltzearekin batera, erabakia Zuzendari Batzordeak hartu behar zuela azaldu zigun. Erabaki hori baiezkoa izango zela espero izan arren, ezezkoak Udalerriari ekarriko zion kalteaz jabeturik, orain arte azaldu dugun proiektuaren 3 urteko historiaz gain, haurtzaindegia irekitzeak justifikatzen zituzten beste hainbat datu gaineratu genituen bidali genien txostenean, eta jarraian aipatuko ditugu zertxobait gaurkotuta.

DEMOGRAFIA

Azken urte hauetako datu demografikoak adierazgarriak dira. Bai 2004 eta 2005 urteetan egon diren jaiotzak kontuan harturik (8 eta 8 hurrenez hurren) eta baita 2006 urtetik aurrera egin ditzakegun proiekzioen arabera. Kontuan hartu behar da herriak izan duen hazkundea urte horietan: 15 etxebizitza salmenta librean egin eta saldu direnak eta, batez ere, herriko biztanleentzat berriki bukatu diren 16 etxebizitza tasatuak, erosleak gehienetan bikote gazteak direlarik. Aurten beste 8 etxebizitza bukatuko dira, salmenta librekoak eta dagoeneko saldu ta omen daudenak.

ZONALDEA

Alkiza nahiko aparte geratzen da aldameneko herrietatik, eta , dena dela, zonaldean dauden beste haurtzaindegiak (Anoeta, Irura, Billabona, Zizurkil) ez dute plazarik soberan izaten, eta ezingo dute ziurtatu Alkizan sortuko den beharrari erantzuna emango diotela.

ESKOLA

Alkizan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza osoa eskaintzen duen Eskola dago. Herriarentzako, lehen mailako garrantzia dauka eskola mantentzeak, eta izan baditu ikasle gutxiko kurtso batzuk, orain aurreikusten dena guztiz kontrakoa da. Hazkunde hori dela eta, Gipuzkoako lurralde ordezkaritzak abian dauka eskola osoa erreformatzeko espedientea. 2006ko maiatzaren 11n udal ordezkariak eta eskolako zuzendaria Gipuzkoako lurralde ordezkaritzako antolamendu arduradun batekin (Marañon jauna) eta teknikari batekin (aparejadorea) bildu ginen.

Horrek arazo bat ekarri digu, kokagune berri bat bilatzera behartu gaituelako, baina era berean haurtzaindegia irekitzearen egokitasuna berretsi egiten du (eta, baita ere, justifikatzen du hasierako proiektua atzera botatzearena eta planteamendu guztia ia bi urtez atzeratu izana).

PROIEKTUA MARTXAN

Hau irakurtzen denerako espero dugu Alkizako haurtzaindegia martxan egotea, eta irailaren 10ean umeak joaten hastea. Dagoeneko 6 ume matrikulatu dira, 3 irailean bertan hasteko eta beste hiru abendutik aurrera. Kurtsoan zehar izena emateko beste bi epe irekiko dira: irailean abenduan hasi nahi dutenentzat, eta abenduan martxoan hasi nahi dutenentzat. ■

Mikel Gonzalez-Etxeberri

Alkizako pilota kronika

Erniope elkarteak antolatutako txapelketako finalista guztiak.

Iazko festaz geroztik, Alkizan edota alkizarrek burututako pilota jarduna kontatzeko asmoz abiatu dugu kronika hau. Hasierarik egokiena Erniope Pilota Elkarteko arduradun eta entrenatzailea den Luis Mari Sorarrain Lasarekin ematea dela iruditu zaigu. Peru baserrian jaioa eta Intxaurraundin bizi den pelotazalearen eskutik jaso dugu kronika honen ardatz nagusia osatzen duen informazioa.

Festak bukatu bezain pronto entrenamenduei hasiera eman zieten eta 6 kategoria desberdinetako pilotariek, hau da, benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak eta jubenilak beren txapelketa desberdinak prestatzen hasi ziren, asteazken arratsaldero, plaza inguruan, pilota soinua nagusitzen delarik.

Federatu mailan infantilak, kadeteak eta jubenilak Gipuzkoa Kutxa txapelketa, irailetik otsailera bitartean jokatzen dena, eta Udaberri eta Euskadiko txapelketak, urtarriletik martxora jokatzen direnak, prestatzeari ekin zioten. Benjaminak eta alebinak berriz, urritik martxora bitartean jokatzen den eskolarteko txapelketari begira jarri ziren.

Eskolartekoan adunarrak eta alkizarrak (guztira 20 pilotari) batera aritu dira, pilotan jolas izenez ezagutzen den jokamoldean parte hartuz. Federatuek aldiz (guztira 9 pilotari), infantiletan eskuz binaka (bikote bat), kadeteetan eskuz binaka (bi bikote) eta jubeniletan eskuz banaka jokatu dute. Hauen kasuan pilotari guztiak inguruko herrietakoak dira.

Aipatutako txapelketa hauetan kadeteetako bi bikoteek eta benjamineetako bikoteak oso emaitza onak izan dituzte. Horrela benjaminek, Tolosan jokatutako multzoan, ez zuten partidarik galdu. Kadeteek berriz, lehenengo mailakoak, azpitxapeldun suertatu ziren Gipuzkoako eta Udaberri txapelketetan; bigarren mailan aritutakoak, txapeldun izan ziren Gipuzkoako txapelketan eta txapeldunek kanporatu zituzten Euskadikoan.

Txapelketa "ofizialetaz" gain makina bat herritako txapelketetan parte hartu dute Erniope elkarteko pilotariek. Hauek gonbidapenez jokatzen dira eta urte guztian zehar banatuak. Ugariak dira bi partida jokatutako asteburuak, Luis Mariren eta gurasoen autoek hitz egingo balukete!!.

Jarraian doakizue herrien zerrenda eta emaitza aipagarrienak:

Elgeta ($4^{1/2}$-koa), Altsasu (kadeteak txapeldun), Irurtzun (kadeteak azpitxapeldun), Añorga, Getari, Tolosako topaketak (benjaminak eta kadeteak

2006ko Beteranoen txapelketako finaleko argazkia. Bertan agertzen dira herriko benjaminak eta alebinak.

txapeldun eta jubenilak azpitxapeldun), HITZA txapelketa (benjaminak eta alebinak txapeldun), Lizarra (alebinak txapeldun, benjaminak azpitxapeldun), Andoain (benjaminak azpitxapeldun), Errenteri (benjaminak eta infantilak txapeldun).

Erniope elkarteari buruzkoa bukatzeko Alkizan ospatzen den txapelketa aipatuko dugu. Udarako sei asteburutan zehar jokatzen da eta gonbidapenez etortzen diren benjamin, alebin, infantil eta kadete mailatako 8 bikote indartsuren arteko lehia ederra ikusteko aukera izaten dugu abuztuan zehar. Amaiera festetan izaten duen txapelketa hau Erniope elkarteak antolatzen du Udalaren eta herriko enpresen laguntzaz. Esan behar aurten ospatuko dena hamazazpigarrena izango dela.

Erniope elkarteak burutzen duen lan azpimarragarriaz gain, herrian beste pilota kontu batzuk ere baditugu eta horiek kontatuko dizkizuegu jarraian. Denentzat ezaguna den Beterenoen arteko Pelota Txapelketari dagokionez esan 2006ko irailaren 8an ospatu zirela XV. edizioko finalak eta irabazleak Antonio Cincunegi eta Julen Hernandez izan genituela. Aurtengokoan gauzak nola dijoazen jakiteko Peruko Aitorrekin hitz egin dugu eta izen emateko epea bukatu denean 14 pilotarik izena eman dutela esan digu. Katalandegiko Xabier eta Peruko iloba den Haritzekin antolaketa taldearen bilera egin ondoren, zazpi bikotez osatutako talde bakarra egitea erabaki dute eta beraz, denek denen kontra jokatu beharko dute.

Ez genuke aipamenik gabe utzi nahi, 4 alkizar gaztek jokatu duten eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketa Herrikoia. Lehen fasea bere multzoko 2. postuan bukatu ondoren, bigarren fasean Geteriarrek kanporatu zituzten txapelketa txukuna burutuz. Gazte hauek Agiñako Josu Eizmendi, Intxaurrandiko Eneko Sorarrain, Jazkuneko Jon Altuna eta Altzon jaiotako alkizarra dugun Iker Altuna izan dira.

Azkenik Agerreko semea den Julen Hernandezen berri emango dizuegu. Añorgako elkartearen izenean jokatu du bigarrengo urtez eta uztaila bitartean 1. mailako eskuz binakako nagusien Gipuzkoako txapelketa jokatzeaz gain herri desberdinatako dozena erdi txapelketetan parte hartu du. Guzti horietatik Itziarren jokatutako 4 1/2-koan sentitu da gustokoen, bertan finalaurrekotara heltzea lortuz. ■

Felix Otaegi

Artista alkizar batekin solasean

Pello Joseren eskutik, Felixen lantokira hurbildu ginen egun batean. Bistaz bai, baina bestela ez nuen ezagutzen. Irribarrez hartu gintuen, dotore jantzita, txukun. Gure Pellok aurkeztu ondoren, denbora gehiegi galdu gabe, "Oilategitik aldizkarirako elkarrizketa egin behar geniola komentatu eta presto azaldu zen. "Aio, aio." Han gelditu zen, agian ziria ederki sartu geniola hausnartzen, bueltaka.

Alkizako baserriko seme bat kalekume bihurtua. Zer dela eta?

Ni Alkizan sortua naiz, Arpide baserrian. Mila bederatziehun eta berrogei eta bostean. Etxean hamabi semealaba ginen, zazpi mutil eta bost neska. Egun, horietatik hamar bizirik, denak bere familiarekin, eskonduta hemen inguruan. Baina Alkizan inor ez. Baserria saldu egin zen. Anai zaharrena bertan gelditu zen maiorazgo eta azkenean saldu egin zuen. Lurra eta guzti. Pena handia hartu nuen nik. Nik pena handia izan dut baserria gurea ez izatea. Gure aita eta ama hara joan ziren, baserria erosita eta han familia sortu.

Arpide baserritik herrira bidea luzea da, ba, eta eskolara joaten ginen bazkaria eta guzti. Elizegi tabernan bazkaria berotzen ziguten, gero jolasteko nahiko denbora izaten genuen.

Ile apaintzaile – pelukero?

Nik nola hemengo jendeak pelukero deitzen didaten eta errazagoa den, ba horrela ibiltzen dut, pelukero.

Pelukero; baina zergatik ez baserritarra edo mediku edo tornero edo fraide edo politikari edo…?

Nire bizitza hemen markatzen da. Hamabi urte nituela, joan nintzen praile edo kaputxino, beste Alkizako lagun batekin. Hondarrabira urte bete eta Altsasun beste urte bete. Hamalau urterekin bukatu nuen nire karrera. Amasan bizitzen da nire arreba bat eta haren etxera etorri nintzen. Hortik, galdezka pelukero nonbait hasteko asmoan eta Juan Ormazabal, Villabonako pelukero bat eta harek hartu ninduan lantegian eta hamabi urte pasa nituen berarekin. Ondoren nere kontura hogeita hamazazpi urte Villabonan.

Pelukeroa zer da, zer izan daiteke, zer izan beharko luke: langile, artisau, artista?

Nire ustez langile behintzat bai; nire bizitza guztia lanean pasa dut. Artisau, noski baietz; gure lana eskuz landua izaten da beti. Artista,… Nik eztakit artista izena eman. Artistek generalean, zerbait beti grabatuta usten dute eta.

Dena den, lagun bakoitzari ilea mozteko garaian, artista-lana egin behar da; ez al da hala?

Zentzu hortan bai, zentzu hortan bai. Orduan artista ere bai.

Zure besaulkian eseri dena zure eskuetan sentitzen al duzu? Besaulkia ez al da batzuetan, neurri batean behinik behin, aitorlekua edo psikiatraren sofa?

Bezero guztiak konfidantzaz etorriko dira, noski, siloian eseritzera. Psikologo, psikiatra,.. Nire ustez hitz horiek nik ez nituzke erabiliko, baina bai erabiliko nuela positibo hitza, baikor hitza, gehienak ibiltzen deguna. Jendeari gustatzen zaio bere aldeko onak, alderdi onak eta ez trapu zaharrak astintzea. Batzuetan betiko bezero bat ikusi eta konturatzen zara animatu beharra dela. Igual hasten da bere historia tristeak kontatzen eta orduan bai, animatu, komentatu, distraitzen saiatzen zara.

Eta lana bukatutakoan zer? Kuadrila izango duzu, ba!

Ixteko ordua zortzitan dut. Eta askotan azkeneko bezeroarekin ordu bete igual kontu kontari. Je, je! Orduan lasaitasuna jartzen zaizu eta ez zaizu iruditzen presa duenik eta orduan aguantatzen duzu lasai lasai. Bezeroa lasai eta ni ere lasaiago, presarik gabe. Orduan askatu egiten gara, batzuetan. Lehenago, garai batean, txikiteatzen genuen, baso erdi batean ibiltzen ginen, baina bakoitza,.. , bat erdi gaixo, beste batzuei kalte, bestea lan berandu,.. utzi genuen eta kitto. Hala ere, kuadrilarekin astean behin egiten dugu afari bat.

Zure orrazi-guraizetik ikusita,euskaldunok ez al gara lotsati edo itxi samarrak?

Bezero euskaldunak oso lotsatiak dira. Eta, uste dut dauden lotsatien artean lotsatiena neroni naizela. Ahalik eta konfiantza lortu arte, ez naiz irekitzen eta hor gabiltza. Konfidantza hartutakoan, badakizu, orduan, bai, bukatzen ez dena. Oso itxiak gara. Agian deskonfidantzagatik, pixka bat. Hori ez dago aldatzerik.

Eta modak. Egun bizarra edota bibotea moztu edo apaintzeko aukera handiegirik ez? Asko aldatu omen da ilea eramateko eta mozteko era. Onerako? Askotan aholkuren bat eman beharko duzu. Kasurik bai?

Ez. Zer esango dizut, ba. Moda bezeroaren gustua egitea da. Lana ondo egitea ere bai. Gaurko egunean errezi-

EDUARDO TORMO, ALKIZAKO MAISU OHIA

klatzea da, nire ustez, inportanteenetariko bat. Hor badaude kurtsoak eta horiek egin beharra daude. Beti joaten gara pixka bat preparatuz eta azken batean ze lan egin behar duzun jakitea da. Eta, gogoan dut, hemezortzihogei urte nituela, orduan bazegoen talde bat, "Los betles", eta ile luzeak eramaten zituzten. Pelukero asko hasi ziren ile luzeak mozten eta bezero guztiek alde egin zien eta pelukeri asko itxi ere bai. Gero hasi ginen ba kurtsoak egiten, preparatzen, reziklatzen, bai korte navajan, eta handik aurrera ba gauzak aldatu egin ziren.

Ze bezero mota nahiago izaten duzu, betikoak, berriak?

Betiko bezeroak dira nire gustuko onenak. Haiek badakizu ze gustu dituzten, ze lan egin behar zaien. Baina nire gustukoenak ume edo gaztetxoak dira. Horiek pixka bat zirikatzen badituzu, izugarrizko terapia sortzen dizute. Eske, hitz egiten dizute errealitate batekin ta ez dira garai bateko umeak bezala harrotzen eta une batzuetan pasatzen dituzu momentu oso onak. Normalean amekin dabiltza, espabilatzen hasi arte, hamar, hamabi urte arte, hortik gora pixka bat lotsatzen hasten dira ta gizontasuna hartzen ta... Baina txikitan kontatzen dizkizute sekreto guztiak, bai familikoak ta amak askotan lotsatuta ere gelditzen dira.

Zuk seme-alabarik, bilobarik bai?

Seme bat. Biloba oraindik ez. Semeak hogeita zazpi urte eta oraindik ezkondu gabea, neska batekin ibiltzen da, baina. Semeari ofizioa erakusteko gogoa izan nuen eta ekartzen nuen pelukeriara. Ez alperrik!

Berriro Alkizako semea villabonatar bihurtuaren bizipenetara buelta emanez, gustura hemen? Kaleko edo herri txikiko giroa; zein nahiago?

Villabonan antolatuta gustura nago. Baina herria, etxea, jaiotako etxea asko gogoratzen det, asko. Harek ematen dit holako pena bat. Baserri hura gurea ez izateak izugarrizko pena ematen digu.

Beraz, oraindik baserria, baserritar bizimodua oso barneratuta eramaten duzu.

Ba bai, ni oraindik joaten naiz. Alkizara joaten naiz, baina Alkizara baino nire jaiotako etxera joaten naiz gehiago. Nire lagun batek erosita dauka gainera, kasualitatez, eta haren bitartez baserrira askotan joaten gara. Txikitako oroitzapen politak izaten dira. Hamaika, hamabi urte arte han bizitu nintzan eta nahiz eta hura gogorra izan, oso oroimen onak dauzkat baserriko garaikoak. Oso onak dituk. Urtean behin familikoak bazkari bat egiten dugu taberna batean, ta beno, hor gabiltza.

Eta gure hizkuntza, euskara, arriskuan ikusten al duzu egoera berri honetan?

Gure hizkuntza, euskara eztago arriskuan, nire ustez. Nik uste dut gure herri txikietan bizitu diren ume erdaldunak, Asteasun adibidez, etorkinak larogeian etorritako umetxoek, umeek, guk bezala euskara ikasi dute. Gurasoak ez, gurasoak hor sartzea zaila da; baten batek igual ikasiko zuen, baina zaila da. Baina umeak, gu bezala. Asteasun ta Larraulen dauzkadan bezero koskor horiek, aurten komunioa egiteko hemen dabiltzanak, gurasoek eztakite eta umeak, berriz, guk bezala egiten dute euskaraz.

Eta hori eskolari esker?

Eskola bakarrik ez, gero jolasteko giroa. Nik uste dut jolasteko giroa dela hor gehien bat. Eskoletan umeak ikasten dute eta badakite eskolan defenditzeko heinean, baina hango jolasteko giro hori, hori da nik bilatzen dudana euskara ikasteko modua.

Eta erretiroa noizko? Gogorik bai?

Beno, ba, hirurogei ta bat urte dauzkat eta nire bizitza guztian lan egin dut eta oraindikan hirurogei ta bost bat urte arte pentsatzen dut ba segitzea. Gero eztakit zer pasako den.

Arpide zure jaiotetxeko oroitzapen bereziren bat baduzu?

Bai, nire umetako oroitzapenetara noa, jaoitetxea oso frutalekoa zen eta han fruta asko genuen. Ni mutil koskorra nintzala, gure ama zenak bere bizimodua uste dut ateratzen zuela fruta salduta. Gerezia, arana, udare, sagar asko, denetatik zen, eta bakoitza bere garaian. Orduan trenean Donostiara joaten zen saltzera. Fruita bere zestotan, bakoitzean klase klasekoak, gainetik serbilleta eta lista batekin preparatzen zuen txukun txukun. Nik eta gure familikoak laguntzen genion, jartzen zituen sei edo zortzi zesto, haiek denak batera ezin ziren ekarri, banaka ekarri behar ziren, zapaldu gabe Villabonaraino. Goizean sei terditarako etortzen ginen. Etxera joan, gosaldu eta Alkizara bederatzitarako eskolara.

Horrela bukatu genuen solasaldia. Eskua eman eta han utzi nuen, goizeko aurreneko bezeroen zain, lasai, irribarrez, dotore. Villabonatar bihurtua, baina, Alkizako kutsua berrogei urte pasa ta gero kendu ezinik, gure herriko enbajadorea. ■

ITSASO GONZALEZ DE LEIBA, AIZTONDOKO DINAMIZATZAILEA

Aiztondoko I. Gutun Lehiaketa

Aurtengo udaberrian egin da lehen aldiz Aiztondoko Gutun Lehiaketa. Ekimen hau Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatua izan da. Hogeita bi gutun izan dira aurkeztutakoak, eta esan behar dugu antolatzaileok gustura geratu garela, hurrengo urtean errepikatzeko gogo biziarekin. Gaia "Nire lagunari" zen, eta egia esan, mota guztietako gutunak irakurri ahal izan ditugu.

Sari banaketa Larraulgo Antton Amonarriz Kultur Etxe berrian izan zen, maiatzaren 26an. Ondoko hauek jaso zituzten sariak:

A mailan (6-8 urte bitartekoak)

1. saria Adunako Aitor Zabalak eta 2.a baita ere Adunako Aizpea Belaskok.

B mailan (9-11 urte bitartekoak)

1. saria Martin Lizardi alkizarrak: 2. saria Pello Alkain Larrauldarrak.

C mailan (12-16 urte bitartekoak)

1. saria Aia Kruse alkizarrak

E mailan (17 urtetik gorakoak)

1. saria, Amezketako Imanol Artolak eta 2.ak Iruñeko Lander Majuelo.

"Oilategitik" aldizkariak eman digun aukera hau aprobetxatu nahi izan dugu Herriko saridunek aurkeztu zituzten gutunak oso-osorik guztiek irakur ditzazuen. Eta azkenik gogoan izan datorren urtean ospatuko den II. Gutun lehiaketan zuen partehartzea espero dugula.

Martin Lizardi. Gelako lana izan da gutuna idatzi eta prestatzea

Aia Kruse. Sari banaketa egunean eskutitza irakurtzen

MARTIN LIZARDI

Alkizan, 2007ko apirilaren 16an

Kaixo Diego:

Jada lau urte dira Matxu Pitxun izan nintzela nire gurasoekin, eta geroztik asko gogoratzen naiz zurekin. Gogoratzen al zara zein ederki pasatu genuen han ezkutaketetan ibiltzen ginenean basoan?

Hemen baso ugari dago eta den-dena berde-berdea da. Horretaz pentsatzen dudanean zurekin gogoratzen naiz. Gogoan dut zu txabola batean bizi zinela. Ba, ni eta nire lagunek basoan txabola egiteaz bukatuko dugu laster. Baina gurea jolaserako izango da. Gogoan dut baita ere zu aitarekin mendira joaten zinela lanera. Gu berriz, hemen, mendira denbora-pasa joaten gara.

Nire lagunei kontatu nienean nola bizi zinen, oso gogorra iruditu zitzaien, eta denak zu noiz etorriko zaren zain daude. Etortzen zarenean nirekin oso ondo pasako duzu, eta gauean nire gelan egingo duzu lo, eta ikusiko duzu ze ondo pasako dugun.

Irrikitan nago zu ikusteko.

Agur Diego, laster arte

Martin

AIA KRUSE

2007ko apirilaren 12an, osteguna

Amona maitea:

Zauden lekuan zaudela, zer moduz? Ni… ni ondo nago… Zu berriz ikusteko irrikitan (inposiblea dela jakinda). Inork ez bait daki zehazki non zauden: zeruan, beste gorputz batean,… Jakingo banu non zeunden… hiltzean hara joango nintzateke. Baina hiltzean ere ez bazaitut aurkitzen?

Joan zinenean, ez nuen gauza handirik sentitu…

Orain berriz, nire sentimenduen beldur naiz. Zurekin hitz egiteko gogoz, edozein hormetan zure aurpegi eta ahotsa ikusi eta sentitzen ditudanean. Gogoratzen zaitudan bakoitzean, beldurra. Ezingo zaitut berriro ikusi? Ondo al zaude? Nitaz gogoratzen al zara? Zuk berdina galdetzen al diozu zure buruari?... Buff… Ez dakizu ze gogo dauzkadan denaz ahazteko. Hemendik urrun egoteko… Zu ikusteko… Maite zaitut eta maiteko zaitut. Zure irrifarra sentitzeko. Arratsalde bat elkarrekin… EZINEZKOA!

Azken aldian, gaizki zeundenean, beldurra, esaten dena sentitzen nuen. Orain berriz, nire inozokeria baztertu eta "zergatik egin ote nuen hori?" pentsatzen dut. Zein tuntuna izan nintzen. Zure azken egunak nik beldurtuta pasa nituenean. Barkaidazu. Zuri muxurik eman gabe, hitz egin gabe, begietara zuzen begiratu gabe zu gaixki pasatzen? Ikaragarri zazpuztu dut. Eta amorru izugarria ematen dit, zuri kasurik egin gabe zu joan izana… Benetan, barkaidazu…

Gogoratzen gure panpin kolekzioa egiten genuenean? Izugarri politak ziren denak. Oraindik ere badauzkat! Edo gaztelura joaten ginenean arratsaldero! Baina azken-azkeneko aldiz zerbait batera egin genuela izan zen hondartzan. Biok bakarrik, udarako itsaso beroan. Nirekin inork etorri nahi ez zuenean; zu etorri zinen. Hotzik gabe. Goiz osoa pasatu genuen uretan. Ja, ja, ja!... Eskerrik asko… gabarroiraino etortzeagatik. Heldu guztiek esaten zutenean, "a, ze hotza! Ezin duzu bakarrik joan?!... Zuri esker ez nintzen bakarrik egon.

Asko pozten nau gutun hau idazteak. Asko lasaitu nau… Maite zaitudalako!... gogoratzen dut, gauzak ahazten zenituenean; edo erresidentziara igo behar zenuenean… Jendeak esaten zuen, "burua galdu zenuela". Neri min asko ematen zidan horrek. Banekielako gezurra zela. Nik maite zintudalako… zaitudalako…

Inork ez daki (zu barne) zenbat maite zaitudan. Zu joanak, bizitzako zati handia kendu didazu. Baina nola esan zenbat behar zaitudan? Gutxienez askatu naiz eskutitz honen bidez. Eta eskerrak! Ikusiko bazenu etxea zein bakarrik dagoen… bildurtuko zinateke. Ez da inolaz ere berdina. Zuk dena ongi egiten zenuen. Denak bildu. Denak zuzendu… Horixe behar dugu orain etxean. Ixiltasun bildurgarri hau kentzea… Zu! Zu zara konpondu dezakeen bakarra. Baina zer egin dezaket nik?... EZERREZ!...

Zure zuhaitza oso polita da. Oso ondo hazten ari da. Nola ez!

Espero det noizbait zu berriz ikustea. Muxu pila bat:

Zure iloba: Aia

Bertsotan

Iaz atal honekin hasi ginenean, esan genizuen hemen azalduko ziren bertsoak Alkizan botatakoak edo Alkizarekin zerikusia zutenak izango zirela. Aurtengoan Anjel Mari Peñagarikanok 1992an Alkizako jaietan botatako bertso batzuk ekarri nahi ditugu gogora. Irailaren 4a zen. Gaijartzaile lanetan Lazaro Azkune aritu zen, eta bertso hauek duten kalitateaz gain, bereziak dira Habanera doinuan Plaza batean kantatutako lehenengoak direlako. Gaiak honela zioen:

"Orain dela urte batzuk hemen Alkizako jaietan ezagutu zuen neska batek nahiko logaltze ekarri zion ondorengo egunetan Peñari. Geroztik neska hori non ikusiko ibili da batean eta bestean, baina ez omen du ikusi. Ez dakigu gaur hemen neska horri dei egingo dion edo zer. Hori da Peñaren arazoa".

Gelditu gabe aurrera
erlojuaren orratza,
sekula ez zait ahaztuko
igaro nuen arratsa,
eguraldia ederra zen
ta ez gaur bezin narratza,
polita izateaz gain
izaeraz aberatsa,
horia eta lisoa
ilea edo adatsa,
geroztikan bihotzean
nik badut hutsune latza,
oraintxe kontatuko det
romantze horren akatsa,
geroztik ez det ikusi
txunditu nindun neskatxa.

Kantatzen jarraituko det
gertatutako kasua:
Hemezortzi urte zitun,
ederra, kuriosua,
ni ere ordun gaztea,
ausarta ta berritsua,
eta maitasuna berriz
beti izaten da itxua.
Maitea, piztu zenidan
zuk maitasunan sua,
zure begirada nuen
hitzik gabeko mezua,
frontoia ilun zegoen
eta laztanduz petxua,
iskin hortan eman nion
lehenbiziko muxua.

Kaso hori gerta zela
joan dira hainbat urte,
geroztik gerta da hemen
hainbat ekaitz ta elurte,
zuk zeurearekin bazenitun
hainbat doai ta bertute.
nik dana eskeini nizun
maitetasunaren truke,
eta neskatxa polita
beti izan zaitut maite,
tratua egin gentzake
oraindik nolabaite,
saioa amaitutzean
honera etorri zaite.

(X.Artola) Peña, pentsakor, beste bertsolari batzuekin Alkizako frontoian

Pello Joxe Aranburu eta Enrike Larrarte Arregi

Toponimia IV

Azaldegi eta Sakamidra bailarak

Lehenagoko, 2004-2006, hiru urteetan toponimia aztertzen erabilitako bideari eta ahozko erabilerari jarraituz, hau da, Alkizako baserritarrek eguneroko lanetan erabilitako leku-izenak bilduz, Azaldegi eta Sakamidra bi bailaretako zenbait pertsona elkarriztatu dira: Apaiztegi eta Etxabeko bi Juan, Basatxabalgo Pantaleon, Aizmendiko bi Simon, Azaldegi-etxeberriko Milian, Etxabe-txikiko Juan Mari, Saletxeko Garaiburu-Arsuaga senar-emazteak, Aginagako Antonio eta Inasio Mari, Garmendiko Benito, Belakaeneako Felis, Ikiliko Martin, Urruzulako Pantaleon eta Jose Ramon, Tximistako Koldabika, Antzolako Koldo Jauregi, Otsamendiko Segundo eta Larrunbide-etxeberriko Antselmo. Denei Oilategitik aldizkariaren izenean hemendik eskerrik beroenak ematen zaizkie. Beroiek egindako mesedeagatik eta aldizkari honi esker, behin-behinik behintzat aipatutako toponimia gorde eta herriko mapa batean kokaturik geratuko dira. Ez da gutxi.

Jakinaren gainean gaude oraindik herriko toponimia osoa biltzeko urrats asko gelditzen dela eta ahozko leku-izenak jasotzea lehen pausoa besterik ez dela, baina, nolabait hasi egin behar zen eta hori ia eginik dago. Aurten ere ahozkotasunari lehentasuna emanez, bere horretan transkribatu dira hitzen laburdura edo ahozkera errespetatuz.

Hogeita hamalau baserri, etxe eta eraikuntza berriren izenak daude bi bailaretan. Hamar herri mugarriren toponimia, zortzi errekatxo eta iturri, mendiei dagokienez, berriz, Sakamidra bailaran bost tontor, garaiena Txurro delarik.

Zumitza baserritik hasi, Aginâ baserrian zehar Sâberaino iritsi, Arraiara jaitsi, handik Olaa errotara eta Añoara igo gara leku-izenak mapan kokatzeko orduan. Zenbaki eta toponimiaren ibilbidea amaitzeko garaian, berriz, Añoatik Etxaun-berrira, handik Itturbitara jo eta Etxabe-txiki baserriaren ondoan, Kalbariozâr-en kokatu da azken zenbakia.

Alkiza osoan bezala, bi bailara hauetan ere bada toponimia errepikatua, hainbat aurrizki, atzizki eta hitz-konposatuez egina, esaterako, Etxaburu edo (-azpi, -atze, -aurre), Errota-alde, Karobialde, Goikosoro, Bêkosâsti, eta abar. Bi bailarak nahiko populaturik egon eta ia sail guztiak gaur oraindik erabiltzen direnez, jabe edo maizterrek ezagutu, horien ahotik jaso eta tajuz kokatu ahal izan dira. Denetara ehun eta berrogeita hamar bat leku-izen eman dira zerrendan. Hogeita bost bat baserri eta etxe izenez gainera badira beste hamar bat eraikuntza, beitegi, lantoki, karakoldegiz osaturriko multzoa. Horiek guztiak toponimia aberatsaren lekuko dira. Mendiola leku-izenaz ohar pare bat egin behar dira. Izan ere, Etxabe-txikitik hasi eta Murgil arteko sail, mendi eremuari Mendiola esaten zaio, berez, desagertutako baserri baten izena besterik izan ez zenean. Mendiola mendiaren izen jatorra Txurro da.

TOPONIMIA IV AZALDEGI ETA SAKAMIDRA BAILARAK




469
468
OLÂ
465
466
467
461
463
460
476
462
477
459
ETXAUN
458
456
457
455
454
ETXAUN-BERRI
479
481
452
453
419
420
APAIZTEGI
427
451
446
450
ETXESAGASTI
445
SÂBE
448
447
443
418
424
428
449
444
429
441
442
GARMENDI
440
AZALDEGI-ETXEBERRI
431
433
434
435
439
bi EIZMENDI
438
414
437

Herri mugarriak

Maratulus, Irugurutzeta, Saka(b)io, Olatza, Lanberta, A(r)izmendi, Zalminâ, Arraia, Sagarbakoitzaga, Aldanoalde, Muñagaineta-ondoa.

Erreka eta iturriak

Angaraerreka, Astabierreka, Oliturri, Buztinerreka, Arraia, Iturritxiki, Troska, Unzuloerreka

Mendiak

Txurro, Suruzpuru, Murgil, Otalats eta Goikogain

Toponimia errepikatua

Etxaburu, Etxazpia, Etxeatzea, Atarikoa, Goiko (-gaineko) eta Bêko sorobelaze-baso-sâsti. Errota-Etxaun-Etxabegoin, Mendiola, iturri, karobi... (-alde edo -ondo).

Leku-izenak edo toponimia arrunta

(381) Murgil
(382) Zumitza
(383) Zumitza-berri
(384) Zumitza-txiki
(385) Lakaizâr
(386) Lakaitxiki
(387) Bolaleku
(388) Pelotaleku
(389) Kapileri saila
(390) Ospela
(391) Sâstizar
(392) Soroberri
(393) Bipagoeta
(394) Suruzpuru
(395) Karobialde
(396) Lamasoro
(397) Xeârrotegi
(398) Soroaundi
(399) Basatxabal
(400) Maratulus
(401) Irugurutzeta
(402) Muñabe
(403) Errekabazter
(404) Itturrizar
(405) Agiñâ
(406) Saletxe
(407) Sakaio
(408) Arkaitzgain
(409) Egialde
(410) Ezkita
(411) Otelats
(412) Gaztainaundi
(413) Olatza
(414) Lanberta
(415) Olatzazpi
(416) Astabierreka
(417) Andretei
(418) Sargaztegi
(419) Landare
(420) Intxorrose
(421) Landasoro
(422) Orita
(423) Sâbe
(424) Belakaenea
(425) Apaiztegi
(426) Etxesagasti
(427) Karakoldegi
(428) Barruti-txiki
(429) Abesoro
(430) Azaldegi-etxeberri
(431) Goiztiri
(432) Garmendi
(433) Oliturri
(434) Itturralde
(435) Ziarsoro
(436) bi Eizmendi
(437) Amalur
(438) Zalminaldea
(439) Bordaldea
(440) Leizaldi
(441) Buztinzulo
(442) Jarri
(443) Untxitegia
(444) Arraia
(445) Arraiako-zubia
(446) Umana
(447) Karobialdea
(448) Garmendibaso
(449) Tximista
(450) Bolaleku
(451) Perubaso
(452) Partzeko Osina
(453) Sagarbakoitzaga
(454) Kanala
(455) Itturritxiki
(456) Aldano
(457) Andolalde
(458) Andolalde-barrena
(459) Gaztaindei-txiki
(460) Karobialde
(461) Muñagaineta
(462) Lorbide
(463) Errota-berri
(464) Olâ edo Errota-zâr
(465) Botana
(466) Goiko Errota
(467) Laiotzekosoro-belazea
(468) Presagaña
(469) Iharei
(470) Untzuloerreka
(471) Añoa
(472) Añoko-otaria
(473) Bêkogaztaindia
(474) Bêkosâstia
(475) Galbera
(476) Parrai
(477) Etxaunazpi
(478) Etxaun
(479) Troska
(480) Etxaun-berri
(481) Okelar
(482) Itturbita
(483) Txagaldea
(484) Zozotegi
(485) Txandio
(486) Buztinasoro
(487) Bergeta
(488) Etxabe
(489) Etxabegoine
(490) Etxaburu
(491) Galtzain
(492) Kosketa
(493) Argaina
(494) Zelai
(495) Itturralde
(496) Txurro
(497) Mendiola
(498) Panaderosaila
(499) Barrutizâr
(500) E·txabe-txiki
(501) Kalbariozâr

Bi anai

Eli Elizondo

Joxe Inazio eta Bittori Areeta baserriko terrazan

Juanito Arantzabene baserrian

Ama bidaniarra, aita berriz errexildarra, eta beraiek, Joxe Inazio eta Juan Mujika Iraola anaiak, Errexilen jaioak dira. Nonbait Errexilgo baserria txikia zela eta, Alkizako Etxabe baserrian morroi zuten osabak esandakoari jarraituz, honera etorri ziren etxe handiago baten bila. Errexilgo baserria eta lurrak saldu eta 1931 edo 32. urtean pasa omen ziren oinez Zelatundik barrena. Juanek dio berak sei hilabete zituela eta astoaren saskietan ekarria izango zela. Aranzabenen bizi izan ziren maizter urte luzez eta lan asko eginda aurrera atera ziren. Biok diote jaio zirenetik hasi zirela lanean. Hamaika seme-alaba izan ziren, hamar bizirik, eta familia hori aurrera behiekin atera zuten, txalak haziz. Lana gogorra eta Aranzabeneko lurrak maldez beteta, Joxe Inazio akordatzen da aitak goldearekin lana egiten zuenean, berak artean hiru urte besterik ez, aitak zera esaten ziola, "Hire kontu!", eta kanpora ateratako lurra jaso eta bere lekuan jartzea zela bere ardura.

Gero Areeta baserria erosi zuten, bere koinatu baten aitarena omen zen, eta jabeek Ameriketan dirua egin, baserria subastan jarri eta Irurako palaziora bizitzera joan ziren. Gerra denboretan ere eskasia zegoen eta Joxe Inaziok kontatzen digu Bidaniako errotakoak senitartekoak zituztela eta makina bat aldiz joaten zela oinez irin bila. Juanitok dio hamabi urtekin hamaika litroko marmita bizkarrean hartu eta abiatzen zela oinez Eulako zubira esnea eramatera, han Larrauleko batek jasotzen ziela eta.

Honela gauzak, eskolara lanerako giroa ez zegoenean bakarrik joaten ziren eta, noski, maestroak ezin zituen egunero joaten ziren haurren martxa berean jarri. Bederatzietan hasten omen zen. Lehenengo ordu erdian doktrina ikasten zuten, eta gero irakurtzen, idazten eta batuketak egiten aritzen ziren.

Bi anaiak makina bat lan egindakoak dira eta Juanek dioen bezala akabatzeko eginak ez ginelako gaude oraindik bizirik, zeren haitzetan barrena, basoetan arbolak mozten, gauez mendian oinez, milaka arrisku pasa dituzte. Honela hazi ziren eta soldaduskarako urteak bete zituztenean Joxe Inaziok Burgosera, kabaleriara, eta geroago Juanek Santanderrera joan behar izan zuten. Burgosen hotza latza eta zaldiak zaintzen lan handia, janaria txarra eta Joxe Inaziok, 76 kilokin hara iritsi bazen, 67 kilo ekarri omen zituen bueltan. Juanek berriz oroimen onak ditu Santanderreko merienda hartzera joaten ziren bodegetakoak, hango sagardoa benetan txarra iruditu bazitzaion ere. Hango sagarrak ez zituen jaten, hemengo kukusagar tankerakoak iruditzen zitzaizkiolako, gusturik gabekoak, alegia.

Juanek dio bere buruaren jabe izan zenean hasi zela ardiekin lanean, nahiz eta sena eta afizioa txiki-txikitatik izan. Aita Tolosako ferira astearte eta larunbatetan astoa hartu eta jaisten zen. Saltzera eramaten zituen babarrunak, arraultzak eta sagarrak, eta handik etxera ardi pare bat ekartzen zuen. Behin bi sasardi ekarri zituen, geldi egoten ez diren horietakoak, eta bere lurretatik ihes egin eta Litxaso aldera abiatu omen ziren; han artzai bat egoten zen eta bere artaldean sartu zirela kontatu digu Juanek. Berak lau urte zituela, hura ikusi eta atzetik joan omen zitzaien. Artzaiak esan omen zion: "Mutil, zer habil?" "Gure bi ardi hona etorri eta artaldean sartu dira", erantzun zion Juanek. Eta harek berriz: "Hona ez da zuen ardirik etorri". Juan amorruz artaldean sartu eta dudarik gabe beraienak ziren bi ardiak ezagutu eta atera omen zituen, baita etxera eraman ere.

Juan Aranzabenen maizter bizi da eta 400 buruko artaldea eduki izan du. Artalde handi hau berak bere txakurrarekin manejatu izan du, ez baitzitzaion gustatzen morroia edukitzea. Bere ustez, harek ez baitzituen berak nahi bezala gauzak egingo. Lehen ardiak Nafarroatik ekarri zituen eta orduandik artzai izan da. Joxe Inazio berriz behiekin jarraitu du Areetan, bere baserrian.

Juan soltero, Joxe Inazio berriz Urrizpeko Bittorikin ezkondu zen, bederatzi urtez nobio ibili eta gero. Igandeetan jaisten zen Anoetara, handik trenez Donostiara Bittori ikustera. Bittori neskame zegoen Donostian. Aieteko elizan ezkondu ziren eta Areetara joan ziren bizi izatera. Urrizpe, Bittorik 21 urte zituela, erre egin zen Santa Ana egun batean. Berak dioenez, baserriko bizitza gustatzen zitzaion eta Joxe Inazio ere bai noski, Areetara ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten. Gaur egun denak inguruko herrietan bizi dira, Iñaki eta Xabier izan ezik.

Eta horrela gustora bizi izan dira Alkizan Errexilen jaiotako bi anai hauek. Beraien umorea eta planta ona ikusita ez dirudi lan asko egitea osasunerako txarra denik. ■

Jose Mari Aranzabe eta Imanol Lizardi

Joan den urteari begira

Oilategitik-en 6. alea argitaratuz geroztik, Alkizan izandako gorabeherei gain begiradatxo bat eman nahiko genieke sail berri honetan. Argazkiak ere sartu nahi izan ditugu. Dena den, seguru gaude hemen aipatu beharreko hainbat eta hainbat ekitaldi, gertakizun edo dena delako, aipatu gabe geratuko direla. Barkatzen jakingo duzuela espero dugu.

Argazkiak zenbait herritar eta lagunek emanak dira: Pello, Nuñez, J. Ignacio, Etxabe eta Altzorbe baserriak, Aitzol, Itsaso..., eta bereziki Lorea Agirre.

ALKIZAKO JAIAK

Eguraldiaren laguntzarekin, giro ezin hobean igaro ziren iazko jaiak. Ostegunez eman zitzaien hasiera haur jolasekin, eta igande gauean Imuntzo eta Belokiren eskutik amaitu ziren. Dena primeran joan zen arren, azpimarratzekoa da larunbat gaueko herri kirol saioan bildu zen jendetza. Bertso-saioa ere bikaina izan zen, eta ustekabe handienetakoa asto lasterketa izan zen, ikusleek zein partaideek ikaragarrizko barre-algarak egin baitzituzten. Gaztetxoenek ere primeran pasatu zuten igande arratsaldean gaztelu puzgarriekin. Azpimarratzekoa da herriko beteranoen arteko pilota txapelketako finalak eragin zuen ikusmina. Gainera, finala ikaragarria izan zen joko aldetik.

Asto lasterketa.

ALQUIZAR-ALKIZA

Herritar batzuk Cubako Alquizar herrian izan zirela-eta, bilerak izan ziren iazko udazkenean, herri harekin senidetze prozesua martxan jartzearren. Egin beharrekoak egin ziren, baina bertako egoera politikoa dela-eta, geldi samarrik dago egun, kontu hura guztia.

Alkizarrak Alquizar herrian.

IKASTAROAK MARTXAN

Urrian, urtero ohi den moduan, ikastaroak jarri ziren martxan.

Haurrentzat, ludoteka, pilota, kirola ezagutuz, eta eskulanak. Helduentzat, berriz, soinketa eta eskulanak.

Hauek dira ikastaroetako alkizarren partaidetza datuak:

· Eskulanak: 4 urtetik 8 urte bitarte: 4 ume.
· Kirola Ezagutuz: 4-9 urte bitarte: 11 ume.
· Ludoteka: 3-7 urte bitarte: 7 ume.
· Esku pilota: 4- 11 urte bitarte: 7 ume.
· Euskal dantza: lehenengo hiruhilekoan: 13 lagun.
· Bigarren hiruhilekoan: 8 lagun.
· Photoshop Alkizan: 12 lagun. Hauetatik 5 alkizarrak.
· Sukaldaritza Adunan: 16 lagun. Hauetatik 1 Alkizakoa.

60 URTETIK GORAKOENTZAT

Udalak 60 urtetik gorako pertsonek dituzten beharrak aztertzeko ikerketa bat egin zuen urrian zehar, Kristina Tra-

pero teknikariaren eskutik. Galdeketa egin zitzaien euren iritziak eta beharrak ezagutzeko

JUBILATUAK ERRIOXARA

Irailaren 27an, Arabar Errioxara joan ziren herriko jubilatuak, Aiztondokoekin batera. Goizean Haro ikusi ondoren, "Rioja Santiago" bodegak bisitatu zituzten. Ondoren, Labastidan bazkaldu, eta arratsalde-pasa Biasterira (Laguardia) joan ziren.

ARGAZKIEN RALLYA

Urriaren 29an, igandea, Aiztondoko 3. Argazki Rallya ospatu zen, Larraul, Alkiza, Aduna eta Zizurkilgo muga barruetan.

DIRULAGUNTZAK

Alkizako Udal Batzarrak 2006 urteko urriaren 31n egindako ohiko bilkuran, "Alkizako herritarrei 2006-2007 ikasturteko kultura, kirola, musika eta euskararen inguruko jarduerak egiteko dirulaguntza deialdiaren oinarriak" onartu zituen. Horrela, interesdunek eskaerak egin eta laguntzak jaso dituzte urtean zehar.

EHIZTARIAK HASERRE

Urria eta azaroan zehar haserre agertu ziren herriko ehiztariak. Urtea txarra izan omen zen oso euren interesetarako, ez baitzen apenas usorik pasa herriko uso paradetatik.

Garai bateko ehiztariek gaur egungoek baino punteri hobea omen zuten.

SAN MARTIN JAIAK

Eguraldiak mehatxua egin bazuen ere, giro ezin hobean ospatu zen San Martin eguna Alkizan. Arratsaldeko 4:30ean haur jolasak izan ziren, bertan haurrek eta dagoeneko hain haur ez direnek parte hartu zutela. Oparitxoak denentzat izan ziren. Ondoren Toka txapelketa izan zen. Osaba-ilobak izan ziren garaile. Javier Gorostidi izan zen txapeldun helduen artean, eta Igor Gorostidi gaztetxoen mailan. Meza ondoren, afaria edo txerri-jatea izan zen frontoian. Ehun eta berrogei lagun inguru bildu ziren bertara, eta jateko gogoa bazegoen ere, ekarritakotik sobera geratu zen batez ere txerri saiheskia.

Abesbatzak kantuan jardun zuen arratsalde, afalordu eta gauean. Alkizarrez gain, baziren Asteasu, Aduna eta beste zenbait herritako lagunak.

Pedro Manuel eta Julen afarirako gaztainak erretzen.

Afalostean, Mus eta Eskoba txapelketa izan ziren. Musean Javier Gorostidik eta Luis Nuñezek irabazi zuten, eta eskoban berriz, Asier Saralegik eta Mikel Lopezek.

VODAFONEREN ANTENA

Vodafone enpresak martxan jarri zuen Telefono mugikorren antena herrian, azaroaren 7an.

JUBILATUAK SANTA LUZIARA

Zumarragako ferira joan ziren jubilatuak abenduaren 13an. Goizean bueltatxo bat eman ondoren, Loiola hotelean bazkalduko zuten. Bazkaldu ondoren, Oriora joan ziren, hango goiko kalean buelta bat ematera.

OSTATU JATETXEA ITXI ZEN

Lau urte eta erdi igaro ondoren, abenduan itxi zituen ateak Ostatu Jatetxeak. Denbora horretan Ibarbia ahizpek kudeatu zuten. Abenduaren 16an, mokadu batera gonbidatu zituzten hurbildu nahi izan zuten guztiak.

OLENTZEROREN ETORRERA

Azken urteetan astoarekin gorabehera handiak izan eta gero, abenduaren 24an, oraingoan bai, astoarekin azaldu zen Olentzero Alkizako Plazan, txiki eta handien gozamenerako.

Olentzero, astoa, haurrak eta gurasoak Alkizako Plazan.

POSTRE LEHIAKETA

Aspaldiko urteetan ohitura den moduan, azken Gabonetako oporrak hartu ondoren bazkaria izan zen Alkizako eskolan. Bazkari honetan gurasoak gonbidatuak izaten dira eta ikasleak eta irakasleak sukaldari lanetan aritzen dira.

Berezitasunik nabarmenena, postre garaian egiten den tarta lehiaketa izaten da bazkari horietan. Iazkoan ere ez zen emoziorik falta izan, eta aurkeztutako guztiak bikainak ziren arren, Ana Isabel Eizmendirena (Martinen ama) izan zen irabazlea.

TORTILLA LEHIAKETA

2005ean bezala, 2006ko abenduaren 28an Tortilla lehiaketa egin zen gizonezkoentzat. Irabazlea Gillermo Otegi izan zen eta bigarren sailkatua, berriz, Javier Gorostidi.



Gillermo buruan txapela duela.

SAHARARRENTZAKO JANARI BILKETA

Urtarrilaren 25a bitartean "Piztu itxaropena" kanpainaren barruan, janaria bildu zen herrian Saharako errefuxiatuen kanpamentura bidaltzeko. Aurten bildutakoak, azukrea, atuna, arroza, lentejak eta konpresak izan ziren. Arrakastatsua gertatu zen ekimena.

KANTU IKASTAROA

Urtarrilaren 26an hasita, Kantu ikastaroa egin da Alkizan Josema irakaslearen gidaritzapean. Hamar bat herritarrek hartu du parte, eta gustura baino gusturago aritu izan dira bertaratu direnak.

Ikastaroan aritu diren batzuk kantuan San Martinetan.

SANTA AGEDA

Iaz bezala, aurten ere atera ziren Amixuri taldekoak eta nahi zuten guztiak, kantura Santa Ageda bezperan. Eguraldiaren laguntzaz, bereziki egun horretarako prestatutako koplak eta beste kanta batzuk abestu zituzten.

JUBILATUAK BAIONARA

Otsailaren 22an, ostegunarekin, Baionara joan ziren herriko jubilatuak. Goizean, Baionako Turismo gidari batekin Hiria bisitatzen izan ziren. Merkatu eguna zenez, hura ikusteko aukera izan zuten. "Bar Du Marche"n bazkaldu ondoren, arratsaldean, Miarritzeko Portua bisitatu zuten.

Jubilatuak irteera batean.

IPUIN KONTALARIA

Otsailaren 26an, Rai Bueno, ipuin kontalaria izan genuen Kultur Etxean, arratsaldeko 5etan.

HAURTZAINDEGIA

Otsailaren 22an egin zen Kultur etxean bilera interesgarria haurtzaindegiaz. Perualdeko eraikuntza batean jarriko da martxan haurtzaindegi hori, eta herritarrek interes handia azaldu dute horretan.

PERUALDEAN ERABILERA BAIMENA

Perualdea urbanizazioko 2, 3, 4, 5 eta 6 zenbakietako etxeei lehen erabilera baimena eman zitzaien otsailaren 27ko Udal batzarrean. Hori dela eta, eskatu zitzaien bertako biztanleei lehen bait lehen errolda aldaketa egitea.

KZGUNEKO IKASTAROAK

Martxoaren 5ean, "zeure finantza erakundearekin lan egin 1" ikastaroa izan zen KZgunean, eta martxoaren 19an "komunikatu posta elektronikoaren bitartez", izenekoa.

EMAKUMEEN EGUNA

Azken urteotan bezala, Alkizan Emakumeen eguna ospatu zen aurten ere. Eguna martxoaren 8a den arren, larunbatean, martxoaren 10ean, egin zen afaria Otsamendi tabernan.

GIZON BAT HIL ZEN FRONTOIAN

Apirilaren 8an, eguerdiko ordu bata aldera, gertakizun triste eta ezohikoa ikusi genuen herriko frontoian. Berrogeita hemezortzi urteko gizon bat, pilotan ari zela, zerraldo geratu zen. Geroago jakin izan genuen "aorta" arteria lehertu zitzaiola. Lehenagotik ere osasun arazoak omen zituen. Anbulantziak, ertzaina, jueza, alkatea eta gainontzekoen presentzia ez zen falta izan.

JUBILATUAK ZARAGOZARA

Apirilaren 25ean, Zaragozan izan ziren herriko jubilatuak. Goizeko7,15ean irten ziren Alkizatik. Goizean, Aljaferia jauregian, La Sen katedralean eta Pilar basilikan izan ziren, hango turismo-gida batekin. Goya hotelean bazkaldu ondoren, hiria bisitatzen izan ziren.

PEDRO MANUEL SORARRAIN JOAN ZITZAIGUN

Apirilaren 7ko goizean betirako joan zitzaigun Peru baserriko Pedro Manuel Sorarrain Amonarriz, 86 urterekin. Azkenaldian, pattal samar zebilen arren, ustekabe handi eta tristea izan zen familiar eta ezagun guztientzat. Pedro Manuel oso ezaguna, maitatua eta ospetsua zen herrian.

Pedro Manuel lagun mina zuen Perikorekin, Perun.

KONPOSTA EGITEKO KANPAINA

Etxeetako konpostatze kanpaina hasi zen apirilean eskualdean. Tolosaldeko Mankomunitateak, Garapen Iraunkorrerako Departamentuaren laguntzaz, lorategia edo gune berdeak dituzten etxeetan konposta sortu eta erabiltzea sustatu nahi zuen. Alkizan behintzat, lortu zuela esan genezake, oso harrera ona izan baitzuen ekimen honek.

UDALEKUETARAKO BEGIRALEAK

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, ekainaren 25etik uztailaren 20a bitartean egingo diren Udaleku Irekietarako begiraleen hautaketa-deialdia egin zuen apirilaren bukaeran. Aurkeztu ziren herritar gazte batzuk, eta aurtengorako Nagore Sagastume eta Julen Hernandez izan ziren aukeratuak.

HAURTZAINDEGIAN IZENA EMATEA

2007ko maiatzaren 17tik 31ra bitartean, haurtzaindegian izen emateko epea izan zen zabalik. Sei haur daude izena emanda.

SAN ISIDROTAKO ASTE KULTURALA

Maiatzaren 11, 12, eta 13an ospatu zen aurtengo San Isidrotako Aste Kulturala. Ostiralean (hilak 11) hasi ziren ekitaldiak Encarni Genuaren Txotxongiloekin. Gauean. Kepa Fernandez de Larrinoak Ekuadorreko Amazonaseko "Cofan" tribuari buruzko erreportaje xarmanta eskaini zuen. Ostiralean ere, Argazki erakusketa zabaldu zen.

Larunbatean, Haur Jolasak ospatu ziren: Altxorrren bila, aulki jolasa, Txerri harrapaketa, eta kukaña. Kukaña helduentzat ere izan zen, eta Ander Sagastume eta Jose Ignacio Gorostidi izan ziren garaileak. Haurretan, berriz, Jokin Saralegi geratu zen aurrena. Txerri harrapaketan, Gorostidi aita-semeak (Javier eta Mattin) izan ziren denbora gutxien behar izan zutenak txerri harrapatzeko. Ondoren, San Isidrotako afaria egin zen, giro ezin hobean.

Jose Ignacio Gorostidi "kukaña"ren gailurrera iritsi zen.

Igandean, Mendi martxa izan zen goiz osoan zehar, Aiztondoko Argazki Rallyarekin batera. Ondoren, kantu bazkari berezia izan genuen frontoian. Herrikoez gain, inguruko herrietako zenbait kantu zale ere, bildu zen. Ez zen jakirik falta izan, ez eta mota guztietako kantu hotsik ere, ondorenean. Arratsaldeko 6etan, Musika kontzertua izan zen Kultur etxean Garikoitz Mendizabal txistularia eta Aitor Furundarena soinujolearen eskutik.

Mendi ibilbidean parte hartu zutenak, Balduino izan ezik.

Asteburu osoan zehar, Koldobika Jauregik prestatuko "Kokoriko" izenekoaren irudia egon zen Plazan. "Kokoriko" jai hauetako irudia bihurtzea da antolatzaileen nahia.

Koldobika Jauregi "Kokorikorekin".

OSTATU JATETXEA BERRIRO MARTXAN

Ekainaren 12an zabaldu zituen berriro ateak Ostatu jatetxeak. Mokadu goxo bat izan zen bertaratu nahi izan zutenentzat. Maria Jesus Alfonso da arduradun berria. Hormak beste kolore batez margotu dituzte, eta horrez gain, aldaketa nagusia komun berriena izan da. Komunak dotore eta egoki geratu omen dira erabiltzaile batzuen hitzetan.

Ostatu jatetxea 1960. urtean.

KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

Ekainaren 18an jarri zen martxan Udaletxearen beheko solairuan Kutxa entitateko kutxazain automatikoa, hainbat herritarren mesederako.

ARGAZKI RALLYKO SARI BANAKETA

San Juan egunean, 19:00etan, Aiztondoko IV. Argazki Rallyko Sari banaketa izan zen kultur etxean. Bertan, 28 argazkilarik hartu zuten parte eta irabazlea Aitzol Etxegoien lasarte-oriarra izan zen. Argazki erakusketa eta bideozko argazki emanaldia ikusgai egon ziren 18:00ak ezkero.

Aitzol Etxegoienen argazki honek jaso zuen 1. saria.

SAN JUAN SUA

Azken urteetako usadioari jarraituz, aurten ere urteko gaurik luzeena omen den horretan, San Juan su bikaina piztu zuten, udaletxearen atzealdean. Arratsaldean zehar herritarrek erregaiak eraman zituzten, eta 9ak aldera afarimerienda ederra dastatzeko aukera izan zuten bertaratutako guztiek. Txikienen ustekaberako, buruhandiak agertu ziren bat-batean. Ondoren, hamarrak eta erdiak aldera, Jose Ignacio Gorostidik (ohi duen moduan) sua piztu zuen. Gero, kantak, dantzak eta saltoak izan ziren goizaldera arte. Herritarrek gustura ospatu zuten aurtengoan ere, egun seinalatu hau.

Herritarrek suaren inguruan dantza egin zuten, izpiritu txarrak uxatu nahian

IMANOL LIZARDI

Udal berria

Denok gogoratzen duzue maiatzaren 27an, Batzar Nagusietakoekin batera Udal hauteskundeak izan zirela. Alkizako Udalaren osaketarako hauteskundeei dagokionez, bi zerrenda aurkeztu ziren, eta hauek izan ziren emaitzak:

AAE (Alkizako Abertzale Ezkertia)	145 boto
PP	4 boto
Baliogabeak	16 boto
Zuriak	14 boto
Guztira	**179 boto**
Zentsoa	**264**

Horien ondorioz, datozen lau urtetan, zinegotziak eta alkatea zeintzuk izango diren erabakita geratu zen. Batzuk ezagunak ditugu lehendik Udaleko lanetan, beste batzuk ordea, lehen aldiz arituko dira zeregin horretan. Orrialde hauetan aukeratuak izan diren 6 zinegotziak eta alkatea gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu. Beraiekin izan gara, nortzuk diren, nola bizi diren, zergatik egin diren udal ordezkari, eta kontatu diguten beste hainbat kontu zuenganatzeko asmotan. Galdera berberak egin dizkiegu guztiei, eta hara zer erantzun diguten.

Jon Roteta Elola

Alkatea da. Antzieta baserrian jaio zen orain dela 30 urte, Aitor bere anaia bizkiarekin batera, eta orain artean behintzat, bizi osoa Alkizan eman du. Gaur egun Perualdeko etxeetan bizi da. Ezkongabea da, nahiz eta berak "oraindik" dioen. Arotza da langintzaz, eta Atari aroztegian dihardu lanean, duela 13 urte hasi zenetik. Udalean zinegotzi gisa hasi zen 1999ko ekainaren 13an, Alkizan Eskola Txikien Jaia ospatu zen egunean. Alkate lanetan, berriz, hiru urte beteko ditu aurtengo abenduan. Bere zaletasunak zeintzuk diren galdetzerakoan, zalantza izpirik gabe "ehiza" erantzun du. Lehen pilotan ere dezente aritzen zen, baina "txarra" zelako utzi omen zuen.

Nola egin zinen herriko alkate?

Antonioren heriotzaren ondoren, beste zinegotziek hautatu ninduten. Nik onartu egin nuen, norbaitek behar zuelako leku horretan. Garai zailak ziren haiek udalean: bi zinegotzi berri sartu ziren, bata Antonio zenaren ordez, eta bestea Amaiaren lekuan; idazkari aldaketa izan zen, eta aspaldian herrian izan diren bi proiektu indartsuenak martxan jartzeko zorian ginen, hau da, Mikelena-Peru urbanizazioa, eta Perualdeko etxebizitzak.

Bi urte horiek igaro ondoren, zerk bultzatu zaitu karguan jarraitzera?

Batetik, taldekideek asko animatu naute; bestetik, bi urte hauetan ikasitakoa herriari eskaintzeko aukera nuela pentsatu nuen. Baditugu herrian une honetan zenbait proiektu, eta horiek gauzatzeak ilusioz betetzen nau. Esate baterako: zentro soziala, depuradora, arau subsidiarioen berritzea, e.a.

Lau urte hauek igaro ondoren, zer nahiko zenuke egina uztea?

Lehen esandakoez gain, frontoia egina edo bideratua behintzat uzteak poz handia emango lidake. Proiektu hori martxan zegoen dagoeneko ni Udalean sartu nintzenean. Horrekin batera, gustatuko litzaidake Elizaren Sagrario Monumentala (Ambrosio de Bengoetxearena), herriarena denez, herrira itzul dadin. Seguru egon horretarako egin behar diren ahalegin guztiak egingo ditudala.

Gaur egungo Alkizan, zer gustatzen zaizu? Eta zer ez?

Gustatzen zait dena, gehienbat hemengo airean dagoen sanidadea, lasaitasuna, patxada... Gustatzen ez zaidana berriz, da jendeak behar den garaian ez duela ekimenetan parte hartzen, eta gero behar ez den lekuan (tabernan e.a.) hitz egiten duela.

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Antolatzen diren ekitaldi, ekintza eta bileretan gehiago har dezatela parte, eta esan beharreko guztiak bertan esan ditzatela. Eztabaidatuko dira.

Jose Mari Aranzabe Urruzola

Herrian, gehienek "Pepe" izenez ezagutzen dugu. Udal talde osoan zaharrena izateaz gain, "beteranoena" ere bada, 24 urte baitaramatza zinegotzi lanetan. 52 urte ditu, ezkongabea da, eta Elizegi etxeko seme zaharrena da, beraz Alkizan bertan jaioa da. "Gamesa Innergetic" enpresan hasi zen lanean (orduan Echesa zen), 16 urte zituenean. Bertan dihardu gaur egun, azken bolada honetan "bajan" badago ere. Herria eta herrian ibiltzea gustatzen zaio gehien, ia den-dena baitu kontrolpean. Irakurtzea ere oso gogoko du.

Nola animatu zara zinegotzi izatera?

Horrenbeste urte eta gero, nahiz eta hasera batean zalantza batzuk izan, gogoa nuen. Taldeko jendea animatzeak ere lagundu egin zidan.

Zein arlotan gustatuko litzaizuke lan egitea Udalean?

Edozein arlotan, baina gehienbat Kultura arloa dut gustuko, urte asko baitaramatzat horretan. Gainera, Itsasorekin ondo konpontzen naiz.

Lau urte hauek igaro ondoren, zer nahiko zenuke egina uztea?

Dudarik gabe, frontoia. Aspaldiko urteetako ametsa da hori.

Gaur egungo Alkizan, zer gustatzen zaizu?. Eta zer ez?

Gustatu dena. Eta gustatzen ez zaidana da jendearen "pasotismoa".

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Antolatzen diren ekintzetan gehiago parte hartzea.

Jon Umerez Urrezola

Aloña-mendi, Aizkorri eta Arantzuko Santutegiaren babesean jaio zen 1962. urtean. Ernio mendiaren itzalera, ordea, etorri zen bizitzera 2.000.ean. Ama Berrobikoa du, Tolosaldekoa. Emaztea, berriz, Argentinakoa: Gabriela. Bi alaba ditu: Ane eta Marina. Gutxik dakigun arren, bera bizi den etxeak "Eltzaurpe" du izena, Kanposantuaren ondoan dagoena. Donostiako Filosofia Fakultatean aritzen da lanean, Biologiaren Filosofiaren arloan, hain zuzen ere. Etxeko lorategian irakurtzea du oso gustuko.

Alkizan ere teknologia berriek lekua dutela erakutsiz, e-mail bidez erantzun die, patxadaz, guk egindako galderei:

Nola animatu zara zinegotzi izatera?

KOSTATA!!! Hala ere, herriaren ongizatea guztioi dagokigun ardura bat baldin bada, ez zait erraza egiten ardura horren zati bat hartzeko aukera daukazunean ezetz esatea (are gehiago kanpotik etorritakoa izanik). Ezetz esatea ere kosta!!! Parte hartzeko gonbitea Gabrielarekin aztertu genuen. Kontuan hartu behar genuen orain dela 4 urte Marina jaiotzear zegoela (ekainekoa baita) eta zailago izan genuen aurrera egitea, udaletxeko lanarentzako astirik nondik aterako genuen ez bai genekien. Oraingo agintaldian, alde horretatik, errezagoa izan da baietz esatea.

Zein arlotan gustatuko litzaizuke lan egitea Udalean?

Nahiago nuke orain arte izan ditudan ardurak mantentzea, batez ere kontuak (Ogasuna eta Kontu Orokorrak) eta hezkuntza (Heziketa eta Euskara).

Lau urte hauek igaro ondoren, zer nahiko zenuke egina uztea?

Gustatuko litzaidake haurreskola martxan eta finkatuta ikustea eta eskolako berregituraketa ere gutxienez abiatuta (nahiz eta hori Hezkuntza sailaren esku egon eta ez udaltxekoenean). Beste arlo batean, Donjuanena etxea erabat berrituta eta serbitzu sozial anitzetarako egokituta, planifikatutako guztia burutu eta gero.

Gaur egungo Alkizan, zer gustatzen zaizu? Eta zer ez?

a) Bertako bizitza lasaia, naturaren erdian nolabait, hiri eta herri handiagoko giro urbanotik at, eta erabat euskalduna izatea.

b) Ez zait okurritzen ezer aipatzea merezi duenik, biztanle bezala behintzat (azken finean gu hona bizitzera nahita etorritakoak gara, aukera zehatz baten ondorioz). Baina, hain lausengari ez geratzeko eta zinegotzia naizen aldetik, udaletik begiratuta, agian bertakoen partizipazio falta aipatuko nuke eta, era berean, hain beharrezkoa den kritika zuzenean eta aurpegira egin beharrean esames eta zurrumurruen sahiesbidetik eramatea, baina ez dut uste hau Alkizako ezaugarria denik, baizik eta fenomeno orokorra.

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Alkiza herriarekiko begirunea. Honek esan nahi du bertan daukagun giro soziala eta naturala aintzat hartzea, estimatzea. Eta ondorioz mantentzen ahalegintzea (eta hobetzen, jakina). Askotan ondo balioesten ez duguna konturatu gabe ez dugu zaintzen eta galtzeko arriskuan jartzen dugu, nahi gabe ere.

Ainara Zurutuza

Tolosan jaio zen 1976ko urtarrilaren 2an. Alkizara bizitzera etorri zen, Santiago Bideko etxeetara 2004an. Botikaria da. Aspaldi, Iruran jardun zuen lanean, baina egun Ibarran dihardu. Gorkarekin dago ezkondua, eta Oier izeneko mutiko bat du. Haurdun dago, eta elkarrizketa hau egin diogun egun berean esan diote neska dela bidean duena. Pozik dago. Bere zaletasunez galdetu diogunean, Gorkak aldamenetik dio gustukoen duena Zara dendetan erosketak egitea dela. Ainarak barre egin du, eta horrelakorik ez idazteko esan digu. "bai, jarri lasai, nire baimena duzu" esan digu umoretsu Gorkak.

Bere hitzetan, berriz, irakurtzea eta kirola egitea da eskulanekin batera, gustukoen dituenak, nahiz eta azkenaldi honetan, gehienbat kiroletarako denbora falta handia sumatzen duen.

Plazan egin dugu hitzordua, eta zintzo-zintzo azaldu da ordua baino pittin bat lehenago familia osoa.

Nola animatu zara zinegotzi izatera?

Pepek eta Jonek deitu zidaten. Hasieran ezezkoa eman nien. Gero, dezente hitz egin ondoren, animatu egin nintzen. Esperientzia berria da niretzat, eta interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaidan.

Zein arlotan gustatuko litzaizuke lan egitea?

Atzo bertan egin genuen arduren banaketa, eta jarri nauten funtzioetan gustura nago, hau da, kirolak eta festak, zaborren mankomunitatea, eta herri txikien arteko koordinazio lana.

Lau urte hauek igaro ondoren, zer nahiko zenuke egina uztea?

Une honetan esku artean ditugun proiektuak bukatuta uztea gustatuko litzaidake: depuradora, zentru soziala, frontoia, e.a.

Gaur egungo Alkizan zer gustatzen zaizu, eta zer ez?

Gustatu lekua, paisaia ikusgarria da, benetan ederra. Herrian, oro har, dagoen giroa ere oso gustuko dut. Bestalde, oraindik ez dut gustatzen ez zaidan ezer aurkitu. Denetarako izango dut denbora.

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Pazientzia azaltzea hasi berria dudan lan honekin. Ahal dudana egingo dut, baina errespetua eta begirunea eskatuko nituzke.

Koldobika Jauregi

"Tirikitauki tauki, mailluaren hotsa," dio euskal kanta batek. Biak ditu oso gustuko Koldok, harritik irudiak sortzea, eta eztarrian hots leunak eraikitzea, hau da, kantatzea . Lehenbizikoa lanbide egin du, bigarrengoa nork daki, egunen batean...

Irudigilea da, bai, eskultorea. Sarri ikusten dugu egunkarietan, telebistan... Donostian jaio zen orain dela 47 urte. Aita Larraulgoa zuen, eta umetan askotan joaten zen aitaren baserrira. Elena andrea, eta Gerezi alabarekin bizi da "Capitan Tximista" izena duen etxean, urte osoan sandaliekin ibiltzen den gizon sendo hau.

Harria lantzen du, bai, eta era berean kontrolpean ditu gaur egungo teknologiek eskaintzen dituzten baliabideak. E-mailez helarazi dizkigu egindako galderen erantzunak.

Nola animatu zara zinegotzi izatera?

Herritarra delako herriaren alde zerbait egiten duena. Neure burua herritarraz jotzen dut.

Zein arlotan gustatuko litzaizuke lan egitea Udalean?

Ez dut arazorik edozein arlotan lan egiteko. Honelako herri txikiak uste dut laguntza guztien beharrean daudela.

Lau urte hauek igaro ondoren, zer nahiko zenuke egina uztea?

Herritarren parte hartzea herri gaietan, baina horretarako ere borondatea behar izaten da.

Gaur egungo Alkizan, zer gustatzen zaizu? Eta zer ez?

Oraindik gutxi hondatuta dagoela. Eta gustatzen ez zaidana plan urbanistikoa eta abar orokor bat ez izatea, neure ustez inportanteena da planifikazio bat egitea eta gero kokatu non izango diren etxeak eta abar. Inguruko herriak gustatzen ez bazaizkigu, saiatu beharko genuke haien akatsak ez berregiten.

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Herri gaietan parte hartzea, arlo guztietan. Haurren benetako parte hartzea heziketa honetan hasten da. Etxean entzun eta exenpluz ikusten dutena eginen dute. Ez du herria maite parte hartzen ez duenak baizik, kexekin bakarrik ez dira gauzak konpontzen.

Beatriz Ruiz Rosado

Dezente dira azkenaldi honetan Donostia aldetik Alkizara bizitzera etorritakoak. Lasaitasun nahiak, naturak, zaratarik ezak... erakarrita etorri ohi dira gehientsuenak. Horrela etorri ziren 2001. urtean Beatriz eta Andoni. Garro baserria erosi, eta Andoni langintzaz igeltseroa dela kontuan izanda, polikipoliki euren kasa berriztatu zuten. Bea 1978an jaio zen Donostian. Olaia izeneko 3 urteko alabatxoa du, eta abenduan bigarrenaz erdituko da. Pozik dago. Gustura bizi da Alkizan, eta bertan jarraitzeko asmoa du."Etxez etxeko laguntza" programan egiten du lan.

Alabaren bila etorri da eskolara, ikasturtea amaitzear dela, eta plaza izkinan harrapatu dugu. Hara zer erantzun digun:

Nola animatu zara zinegotzi izatera?

Amaia Ibarbiak Udala utzi zuenean hasi nintzen. Jon eta Peperekin hitz egin nuen. Bi eguneko epea eskatu nien pentsatzeko, eta baiezkoa eman nien. Nik ere herriarentzat zerbait egin nezakeela pentsatu nuen. Era berean, herria ezagutzeko eta bertakoekin harremanak egiteko aukera ezin hobea zela uste izan nuen. Ez nenbilen oker.

Zein arlotan gustatuko litzaizuke lan egitea Udalean?

Nagoen bezala ondo nago. Ardura gutxi ditut. Orain gainera bigarren haurrarekin ez dakit nola moldatuko naizen. Nire ardurak dira Osasuna, Heziketa eta Euskara, eta Ogasuna eta Kontu orokorrak.

Lau urte hauek igaro ondoren, zer nahiko zenuke egina uztea?

Depuradora jartzea, eta ondo jartzea da niretzat konturik garrantzitsuenetakoa. Euria egiten duenean, jasanezina da kiratsa Aldapa bailara osoan.

Gaur egungo Alkizan, zer gustatzen zaizu?. Eta zer ez?

Oro har, dena gustatzen zait: lekua, dagoen giroa e.a. Gustatzen ez zaidanik ez zait orain bertan bururatzen.

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Konfidantza, pazientzia eta laguntza.

Aitor Eizmendi Garro

Berarekin harreman berezia ez dugunok, traktore berde handi baten gainean ikusten dugu, gehienetan Arana bailarako errepidean. Aitor da. Agina baserrian jaio zen, duela 28 urte. Bertan bizi da, eta geroan ere ez da urruti biziko, etxea eraikitzen ari baita han bertan, Josu anaiarekin batera. Igandea zen etxera bisitan joan gintzaizkionean, eta nola ez, belar artean topatu genuen, lanean. Traktore berdea ez zuen urrun. Aspaldi samarretik andregaia duen arren, ezkongabea da.

Zaletasunez galdetu diogunean, ehiztaria ez dela esan digu azkar asko. Hori bai, tiro hotsa bereziki maite ez badu ere, motor hotsa bai. Motoak eta autoak dira burua pixka bat galarazten diotenak.

Sardea eskuetan duela, erantzun die gure galderei.

Nola animatu zara zinegotzi izatera?

Antonio Zubiaurre hil ondoren alkate Jon jarri zen, eta hark bere zinegotzi lekua betetzera animatu ninduen. Geroztik, legealdia amaitu arren, gustura jarraitzen dut Udaleko zereginetan.

Zein arlotan gustatuko litzaizuke lan egitea Udalean?

Lehendik ditudan ardurekin gustura nago: Tolomendi eta Mataderoa. Gehienbat Tolomendirekin nago gustura, bertan aztertzen diren gaiak nekazal munduarekin lotura estua baitute; eta ni horretan nabilenez, ba... gustura sentitzen naiz.

Lau urte hauek igaro ondoren, zer nahiko zenuke egina uztea?

Depuradora. Frontoia ere konpondu, aldatu, edo egin beharrekoa egin beharko dugu. Bide batzuek ere badute konpontzeko premi ederra.

Gaur egungo Alkizan zer gustatzen zaizu? Eta zer ez?

Gehien gustatzen zaidana da oraingoz behintzat osoa dagoela, eta ez inguruko herri batzuen modura, dena txikituta. Gustatzen ez zaidanik, ez zait horrela bat-batean bururatzen. Hotzean harrapatu nauzu.

Zer eskatuko zenieke herritarrei?

Norbaitek zerbaiten premia badu, behar den lekuan eskatu dezala.

Ekainaren 19an Udalbatzarrak ez ohiko Bilkura egin zuen, eta bertan, besteak beste, Informazio batzordeak osatu ziren eta baita Kide Anitzeko Organoetan ordezkariak izendatu ere.

BATZORDEAK ETA ORDEZKARIAK

Batzorde iraunkorrak modu honetara sortu eta eratu dira:

· **Hirigintza, Obrak, Ingurugiroa eta Zerbitzuak:** Jose Mari Aranzabe, Aitor Eizmendi, Jon Roteta.

· **Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Langabezia:** Koldo Jauregi, Beatriz Ruiz, Jon Roteta.

· **Kultura:** Jose Mari Aranzabe, Koldo Jauregi, Jon Roteta.

· **Heziketa eta Euskara:** Jon Umerez, Beatriz Ruiz, Jon Roteta.

· **Jaiak eta Kirola:** Ainara Zurutuza, Koldo Jauregi, Aitor Eizmendi, Jon Roteta.

· **Ogasuna eta Kontu Orokorrak:** Jon Umerez, Jose Mari Aranzabe, Beatriz Ruiz, Jon Roteta.

· **Nekazaritza eta mendiak:** Aitor Eizmendi, Koldo Jauregi eta Jon Roteta.

Korporazioaren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan, berriz, ordezkari moduan hauek daude izendatuak:

· **Tolosaldea garatzen:** Jon Umerez eta Jose Mari Aranzabe

· **Tolosaldeko hiltegi komarkala:** Aitor Eizmendi eta Koldo Jáuregui

· **Eskola Kontseilua:** Jon Umerez eta Beatriz Ruiz

· **Euskaldunon Egunkaria:** Jose Mari Aranzabe eta Jon Umerez

· **Tolosaldeko Mankomunitatea:** Ainara Zurutuza eta Jose Mari Aranzabe

· **Hitza eta Txolarre irratia:** Jose Mari Aranzabe eta Beatriz Ruiz

· **Aiztondo Gizarte Zerbitzuak:** Koldo Jauregi eta Beatriz Ruiz

· **Tolomendi:** Aitor Eizmendi eta Ainara Zurutuza

· **Apatta-Erreka Industrigunea:** Beatriz Ruiz eta Aitor Eizmendi

· **Agenda XXI:** Jon Umerez eta Ainara Zurutuza

· **Haurtzaindegia:** Jon Umerez eta Joe Mari Aranzabe

· **Herri txikiak:** Ainara Zurutuza eta Koldo Jauregi

Bestalde, denok dakizuenez, alkate kargurako Jon Roteta aukeratu zuten, eta honek Alkataorde gisa, Jose Mari Aranzabe izendatu zuen.

Azkenik, ikusirik Udalbatzarren bileren maiztasuna zehaztu beharra zegoela, aho batez erabaki zuten bilerak hilean behin ospatuko direla, hileko azkeneko asteartean, 20:30etan, egun hori jai eguna denean izan ezik. Kasu horretan laneguna den lehenengo asteartera atzeratuko dira bilerak.

TOMAS LIZARDI

Oinak lurrean burua hegan

Norbaitek txori klase arraroren batekin nahastu ohi omen ditu. Baina ez, hegazkinak dira, gezurrezkoak. Ez, barkatu, egiazkoak dira. Besteak bezain egiazkoak, nahiz eta ezin dugun haien barruan bidaiatu. Alkizan, zaletasun hori duen bizilaguna dugu: Unai Sorarrain. Nork ez du Plaza aldean edo Mendiolan, bakarrik edo haur mordo batez inguratuta, inoiz ikusi mando bat eskuetan duela zeru aldera begira? Bere hegazkinetako bat gidatzen ari da. Laguna du Hernanin, zaletasun hau berarekin batera bizi duena. Aitzol da. Jatorra, alaia eta aparailu hauen inguruan asko dakiena. Jaione lagunarekin etorri dira Alkizara, "Oilategitik" aldizkariaren bidez zuei guztiei euren zaletasunari buruz hitz egitera.

Noiz eta zerk bultzatuta hasi zineten aeromodelismoarekin?

Aitzol: Txikitatik izan dudan pasio bat da, betidanik izan dut hegazkinekin eta hegan egitearekin obsesio antzeko bat. Hasieran maketa estatikoak muntatzen hasi nintzen eta, aurrerago, adin eta diru gehiagorekin, irrati kontroleko hegazkinen munduan sartu nintzen.

Unai: Ni duela urte eta erdi hasi nintzen hegazkin batekin. Ondoren, Aitzol ezagutu nuen eta, bere laguntzarekin, aeromodelismoaren munduan sartu nintzen. Dena den, gisa honetako tramankuluak betidanik gustatu izan zaizkit.

Hegazkinak hegaldatzeko lekuari dagokionez, inoiz arazorik izan al duzue? Non hegaldatzen dituzue hegazkinak?

Aitzol: Orion, traineruen pareko instalazioen inguruan "elektrikoen" lekua dago, leku honetan elektrizitate bidez dabiltzan hegazkinak hegaldatzen dira; San Markosen, berriz, "gasolinazkoen" lekua dago. Hala ere, edozein larre ikusten badugu, hara joaten gara gure hegazkinak botatzera.

Unai: Alkizan bertan, esate baterako, Mendiolan hegaldatu izan ditugu.

Gaiari buruz ezer gutxi dakien bati azal iezaiozue gutxi gora behera zer den aeromodelismoa.

Aitzol: Hegan egiteko pasiotik dator aeromodelismoa, hala ere gauza ugari nahasten dira bertan, artea, etab. Maketa estatikoak deritzenak alde batera utzi behar ditugu, ez baitira aeromodelismoaren barruan sartzen. Aeromodelismoan norberak bere hegazkina muntatzen du, baina hegazkin horrek gero hegan egiteko balio du, ez da apaingarri soil bat.

Unai: Orokorrean hiru talde ezberdindu ditzakegu aeromodelismoaren barruan: gasolinazkoa, elektrikoa eta "beleroena"; azken horiek ez ditugu itsasuntziekin nahastu behar, "belero" deritze aire termikoaz baliatzen direlako hegan egiteko.

Zer behar da hobby honetan hasteko? Oso garestia al da?

Unai: Hasteko hegazkina, mandoa eta hegazkinaren barruko mekanismoa behar ditugu. Hau guztia dakarten "kit" batzuk badaude, eta gutxienez 200 euro inguru ordaindu behar dugu merkeenaren truke. Horiek elektrizitate bidez dabiltzanak dira. Hala ere esan behar da mando batek, hasierakoak, etorkizunean ekar ditzakegun hegazkinentzat ere balio duela. Ohikoa izan ohi da hasieran elektrizitate bidez dabilen hegazkin bat erostea, baina luzera, aurrea jarraitu nahi badugu, gasolinazko modelo bat ekartzea izaten da ohikoena, indar handiagoa baitute.

Aitzol: Prezioan bertan ikus daiteke elektrizitatezko eta gasolinazko hegazkinen arteko ezberdintasuna. Elektrizitatez dabilen modelo merkeenak 200 euro inguru balio badu, gasolinazko modelo merkeenak 300 euro inguru balio du. Hegazkin bat erosterakoan kontuan izan behar dugu zer eta zenbat gastatzen duen, hau da, gasolina ala elektrizitatea, eta gastatzen duenaren eta birkargatzen behar duenaren arteko oreka bilatzen saiatu behar dugu. Adibidez, bi baterien artean, batek luzaroago ibiltzeko aukera ematen duen arren, birkargatzen askozaz denbora gehiago behar du eta, jarraian gutxiago ibiltzeko aukera ematen duen arren, azkarrago birkargatzen den bateria bat hobea izan daiteke.

Unai: Gasolinazko motoreen artean ere ezberdintasunak daude, autoen motoreetan bezala, indarrak ezberdinak dira tamaina ezberdinetako motoreen artean. Era berean, indarren ezberdintasun garbia nabaritzen da elektrizitatezko eta gasolinazko hegazkinen artean, automobiletan bezalaxe.

Aitzol eta Unai euren hegazkinekin Etxaburua etxearen aurrean.

Ba al dago inolako federazio edo antzekorik aeromodelismoaren inguruan?

Aitzol: Bai, Euskadiko Aire Kirol Federazioa. Bertan federatuta egoteak, gainera, aseguru antzeko bat ematen dizu edozein istripuren aurrean, baina ez du lekurik proportzionatzen, eta federatzeko, aeromodelismoko talde baten barruan joan behar duzu, banaka ezin da.

Hegazkinarekin ari zinetela gertatutako istorio xelebrerik ba al duzue kontatzeko? Zein?

(algarak)

Unai: Niri behin haizeak hegazkina eraman zidan: Aire beroz dabilen horietakoa, hau da "beleroa", zen eta, aire berozko korronte batek harrapatu zuen. Hegazkinak ez zuen jaisteko mekanismorik, beraz, norbaitek Ernio inguruan hegazkinen bat topatzen badu, ekar dezala mesedez.

Aitzol: Niri hegazkina zuhaitz batean trabatuta geratu zitzaidan, ez gora ezta behera ere. Azkenean Unairen aitak jaitsi zidan.

Unai: Beste behin behi bati jo genion, eskerrak etxekoa zen…

Ez da oso ohikoa honelako tramankuluak gure zeruan jiraka ikustea. Nola erreakzionatzen du inguruko jendeak?

Aitzol: Harriduraz, miresmenez… Hitz egokiena kuriositatea dela esango nuke. Hobby honek jendearengan gerturatzeko, probatzeko, jakiteko… grina sortzen du.

Unai: Jendea harrituta geratzen da, eta probatzeko gogoarekin baina, behin probatuta, ohartzen da dirudiena baino zailagoa dela.

Galdu al zaizue inoiz hegazkinik?

Aitzol: Bai.

Unai: Niri bi galdu zaizkit, baina bat aurkitu nuen.

Zaila al da gidatzea? Nola ikasten da hegazkin hauek gidatzen?

Unai: Hasieran ez da erraza. Halere, ordenagailurako simuladoreak existitzen dira, nik inoiz ere bat erabili ez badut ere. Nik hala ere, praktikarekin ikasi dut, ordu asko sartuz.

Aitzol: Simuladoreak ordenagailurako jolasak bezalakoak dira. Ni haueta-ko batekin ibili nintzen hasieran, eta San Markosera joan nintzen lehen aldian jendea harrituta geratu zen, askok uste baino hobeto gidatzen bainuen. Nik hasieran simuladore batekin praktikatzea gomendatzen dut, batez ere mandoarekiko beldurra kentzeko, oso konplikatua baitirudi hasieran.

Unai: Beno ba, norbaitek hobby honetan hasi nahiko balu, edozein galdera egiteko etab. gurekin harremanetan jar dadila, eta guk lagunduko diogu!

ENRIKE LARRARTE ARREGI

Karlistei begira ikasteko asmoz

Hemeretzigarren mendea garai tristea izan zen euskaldunentzat.

Hemezortzigarren mendearen hondarrean, azken hamarkadan, gerraren eztenkada berri bat sufritu zuten: konturatu orduko, frantsesak Gipuzkoan sukalderaino sartu eta zegoenetik tripa berdintzeko prest mahaian eserita ikusi zituzten. Laster jabetu ziren Gipuzkoako agintariek orduarteko gerrekin zerikusirik ez zuela hark –Konbentzioko gerra bezala ezaguna– eta mendeetan erabilitako defentsak ez zuela oraingoan balio. Gipuzkoako gure arbasoek duda egin zuten Espainiako erregearen itzalpea utzi eta frantsesen gerizpea hartzeko. Hori zela eta, Frantziako gobernuarekin tratuan hasi ziren, gure Fueroen errespetua bilatu nahian. Madrilen muturra okertu zuten.

Harrezkero, euskaldunak gaizki ikusiak izango gara Madrilen, traidoreak izan omen ginen eta. Hau ez dugu ahaztu behar gaurko egoera ulertu nahi badugu.

Hemeretzigarrenean hiru gerra inportante jasan izan behar genituen: aurrenekoa frantsesen aurka, berriro ere, eta beste biak, karlistaldiak deiturikoak, anaiartekoak. Azkeneko hauek, teorian, Espainian erregea zein izango zen erabakitzeko –Karlos, karlistek errege nahi zutena, atzerakoia eta tradizio zalea omen zena ala Isabel II.ena aurrerakoi eta liberala–. Sinplekeriatan erortzen direnak horrela zatitzen dituzte bi bandoak, baina garbi dago hemen, Euskal Herrian, Espainian ez bezala, erlijioa eta Fueroak uztarturik izan zirela arrazoi nagusi gerran aritzeko.

Juntak eta apaizak
alkartu ezkero
noren beldur gera gu
ez orain eta ez gero?

diote Muñagorriren bertsoek. Aurreneko karlista-gerrakoak dira.

Elduaingo Muñagorri aipatu dugunez, esan beharra dago honen esanetan gerra hau ez zela gurea. Horregatik gerra uzteko ahalegin guztiak egin zituen, arrakasta handirik izan ez bazuen ere. Bakea eta Fueroak lemapean egin zuen saiakera. Gaur ahaztuxeak badaude ere, famatuak izan ziren bere garaian Muñagorriren pentsaera kaleratu zuten bertsoak. Hona hemen horien muestra:

Zertan sartu gerrara
Juez iñorentzat?
Madriden da tronua
Gaztelautarrentzat.
An koronatzen dana
Guztion burutzat,
Fueroa gorde ezkero
Ona da guretzat.

Adiskide maiteak,
Ona klaro gauza:
Bakarrikan Fueroak
Dira gure kausa. (...)

Sei urte iraun zituen gerra honek: 1833tik 1839ra.

"Euskal batailoiak oso trebeak dira, oro har, hildakoak lumatzen... Borrokaldiaren ondoren, pixka batean itxoin beharra dago, berriz ere elkartu aurretik, soldaduak jantzi daitezen. Ingelesei gorbata beltzak eta galtzerdiak uzten dizkiete, karlistek ez dutelako halakorik erabiltzen. Izugarria da hilotz biluzien itxura, gorbata eta galtzerdiak beste arroparik gabe".

Honela dio Schwazenberg austriarrak, Armada liberaleko boluntarioak. Gerra honetan karlisten arazo handiena boluntarioentzako armak eta hornigaiak lortzea izan zen. Karlistak Euskal Herrian ez zuten gizon faltarik izan, diru falta izan zen arazoa; kontrarioena, aldiz, gizon falta: gerrarako jendea nahi bazuten ordaindu egin behar, egunean pezeta bat. Hortik dator karlistak "pesetero" hitzarekin iseka egitea liberal boluntarioei. Liberalek, bestalde, britainiarrak eta frantziarrak izan zituzten laguntzaile.

Jende pobrea, nekazariak eta herrietako apaizak jarri ziren batik bat karlisten alde, eta Ormaiztegiko Tomas Zumalakarregi jenerala buru izan zuten bitartean ez ziren lotsagarri ibili gerran. Bere mutilek benetan maite zuten eta ez da harritzekoa euskaldun gerlari karlista batzuek Tomas Hego Euskal Herriko errege egin nahi izana.

Bergarako besarkadarekin bukatu zen aurreneko karlista-gerra hau eta, Gipuzkoa osoa, Donostia izan ezik, karlisten menpe egon zen.

Normala den bezala Alkizan ere izan zuen eragina. Hemen behean jartzen ditudan baserri hauen nagusiei –liberalak hauek-- karlistek bahitu egin zizkieten baserriak, eta bertan bizi ziren maizterrek errenta nagusiari ordaindu ordez karlistei ordaintzeko ordena jaso zuten.

Karlistek bahitu zituzten baserriak	Baserriaren nagusiak	Maizterrak
Aginaga (erdia)	Jose Antonio Garagartza	Martin Jose Sarasola
Aginaga (beste erdia)	Jose Antonio Garagartza	Luis Errazkin
Aginaga Saletxea	Jose Antonio Garagartza	Juan Frantzisko Arsuaga
Basazabal	Jose Antonio Garagartza	Simon Jauregi
Aranguren berria	Manuel Joakin Soraiz	Luis Mendizabal
Eleizegi garaikoa	Aranguren brigadierra	Fernando Jauregi
Garmendia garaikoa	Aranguren brigadierra	Juan Lorenzo Goenaga
Gilisasti	Aranguren brigadierra	Bartolome Pagadizabal
Urruzola azpikoa	Aranguren brigadierra	Pedro Antonio Mujika

Bahitutako baserriak	Maizterrak 1835ean ordaintzen zuten errenta (belloizko errealetan)	Maizterrak 1836-38an zuten errenta (belloizko errealetan)
Aginaga (erdia)	715 erreal	560 erreal
Aginaga (beste erdia)	715 erreal	560 erreal
Aginaga Saletxea	660 erreal	450 erreal
Basazabal	660 erreal	450 erreal
Aranguren berria	792 erreal	500 erreal
Eleizegi garaikoa	242 + 4 gari-anega	300 erreal
Garmendia garaikoa	396 + 8 gari-anega + 2 kapoi	532 erreal
Gilisasti	330 + 9 gari-anega + 2 kapoi	532 erreal
Urruzola azpikoa	330 + 9 gari-anega + 2 kapoi	532 erreal

Karlistak, bestalde, Gipuzkoako apaizen informazioa ere biltzen saiatu ziren. Apaizek jendearengan itzal handia zuten garai hartan eta propagandarako lekurik aproposenak elizetako pulpituak ziren. Ez da, bada, harritzekoa apaizak lokarri motzean lotu nahi izana. Alkizan bost hauek azaltzen zaizkigu. Hara zer dioten karlisten informeek:

D. Juan Bautista Legarra: Erretorea. Gerra hasi zenean arma eta janzki foralak Tolosan entregatzeko modua egin zuen. Esaten denez, ez omen da karlisten kontrarioa. Informazioa eskatu. Beste zerrenda batean: Karlista zalea oso eta oso bertutetsua.

D. Pedro Antonio Legarra: Alkizako benefiziaturik zaharrena (orduko benefiziatua gaurko koadjutorea litzateke). Oso karlista zalea eta oso bertutetsua. Filosofiako hiru ikasturte egin ditu, Melchor Canoren ikasturte bat, eta Teologian ere ikasketaren bat.

D. Antonio Jose Alkizalete: Kapellaua. Oso karlista zalea eta oso bertutetsua. Filosofiako eta Moraleko hiru ikasturte eginak ditu.

D. Frantzisko Legarra: Kapellaua. Oso karlista zalea eta oso bertutetsua. Filosofiako hiru urte egin zituen eta Teologian lau.

D. Jose Antonio Zelaia: Benefiziatua. Errege Karlosen etsaia. Ideia liberalen jarraitzailea beti, eta garai honetan harreman guztietatik apartatuta.

Aurreneko gerra Bergarako besarkadarekin bukatu zen eta bigarrena, berriz, karlistek galdu egin zuten. Ondorioz, euskaldunok lehen baino pobreago eta Fuerorik gabe bukatu genuen. Hala ere, horrek ez du esan nahi karlistek irabazi izan balute abe-ratsagoak izango ginenik. Lehen esan dugu Konbentzioko gerran gure agintariek konturatu zirela gerra hura ez zela aurrekoak bezalakoa, Fueroei jarraiki prestatutako defentsa ez zela nahikoa. Baina pena izan zen ez konturatzea, halaber, sakonagoa zela zetorren aldaketa: gizartea hankaz gora jartzera zetorren mundu ekonomiko-politiko berri bat sortzen ari zela. Hori ikusi izan balute, gaur beste kuku batek joko liguke.

Euskaldunok ez dugu, ez, zorte handirik izan.

Jainkoak mundua sei egunetan egin omen zuen eta zazpigarrenean deskantsua hartu. Hala erakutsi ziguten umetan eta hala entzuten diogu Lete oiartzuarrari *Teologia, ideologia* abesti ederrean: izadiaren igeltseroak sei egunetan izerdi-patsez moldatu eta ondu omen zuen mundua eta perfekziozko obra hartan ez omen zen nahaspila sortu Adan maltzurrak gerrikoaren hebila askatu zuen arte. Ez zen pentsamendu berekoa Kanpion idazle nafarra. Arazoak ez omen ziren Adanen hebila askatzearekin hasi, hirugarren egunetik omen datoz, hirugarren egunean egin baitzituen Jainkoak lurrak. Eta badirudi Euskal Herria egitea egokitu zitzaionean siesta garaian harrapatu zuela: Euskal Herria eskutan zeukala, lo-kuluxkaren bat hartu eta hatz tartetik erori zitzaion. Eta non eroriko eta..., zoritxarrez, Espainiaren eta Frantziaren tartean.

Gertaera hartatik omen datoz gure desgraziak!

Dena den, alferrik ari gara orain kexan. Historiak erakutsi diguna neuronetan ongi sar dezagun eta, hura jakinda, egin ditzagun ahaleginak berriro babuerena ez egiteko. Bihotzak esaten digu zer egin nahi dugun, baina nola egin buruak. Eta burukoa plater hotza da. Beldur naiz, ordea, ez ote garen ohitu gauzak hotzean egin beharrean *mekauenka* egiten.

Muñagorriren emaztea eta alaba atxiloturik Tolosarako bidean.

Panorama español, crónica contemporánea. Madrid, 1845. ***Zumalakarregi Museoa***

Tomas Zumalakarregi zauritua.

MADRAZO, Francisco de Paula. Historia Militar y Política de Zumalacárregui. Madrid, 1844. ***Zumalakarregi Museoa***

JOXEAN LARRAÑAGA

Joxean Maliko lagun batzuekin.

Mali

Herrialde behartsuenetakoa

Harritu egingo zara, behar bada, irakurle horrelako gai bat Oilategitik aldizkari honetan aurkitzean. Bidai baten eta 15 urte Maliko Eskola batekin harremanen ondorioa da.

Orain 15 urte hasi ginen talde batetan, "Mali Elkartasuna", Maliko Togo herrian dagoen Saint Paul eskolako arduradunekin harremanetan. Gure asmoa Afrikako herrialde bati laguntzea izan zen. Kontinente pobreena zelako. Gure laguntza xumea izango zela gogoan hartuz, heziketa bultzatzea bururatu zitzaigun, garapena laguntzeko era bat bai da, hango jendeari heziketa eman, eskola eman, baliabideak eman, beraiek aurrera atera ahal izateko.

Nekazal giroko herria da Togo eta ingura ere bai, ia Mali guztia bezala. Komunikabideak, garraioak eta gainerako aurrerapenak oso eskasak dira Malin. Beraz, herri txikietako haurrak eta gazteak ikasteko laguntzak behar dituzte. Garraio publikoa herri txikien artean ez dagonez ikastekotan Barnetegiak behar dituzte, lo egiteko eta jatorduak egiteko barnetegiak.

Sain Paul eskolan horietako bat dute eta ingurutako herri txikietako neska mutilak aukera dute bertara joan eta ikasteko. 200bat ikasle ditu une honetan. Horietako askok dirulaguntza kanpotik datozkie, hainbat talde eta GKE edo ONGtik. Gure taldeak 50 bat ikasle hartu ditu bere matrikula eta barnetegia ordaintzeko. Dirurik ez dutenez, gure laguntzarik gabe ezin izango zuten ikasketek sortzen duten gastuei aurre egin: eskolarainoko

garraiorik ez dagonez, eskolan bertan, lo egiteko, bazkaltzeko; eskolako materiala erosteko…

Horregatik, garbi genuen haurrei eta gazteei heziketa aukera hori eman behar geniela. Horrela, hasi ginen beka batzuk ordaintzen. Ikasturte baten kostua zenbatekoa den kalkulatu genuen eta taldekide bakoitzak hilero kuota bat jarri genuen, hainbat umeri ikasketak ordaintzeko. Pixkanaka, gure lagun eta kideen artean zabaltzen hasi zen kontua eta horrela iaz 50 haurri heziketan laguntzea lortu genuen.

Oraingo bidaia

Apirilaren 23tik maiatzaren 2ra Maliko Togon izan nintzen eskolan ikustaldia egiten. Taldekideen laugarren bidaia da, ni bi aldiz izan naiz. Beraiek ere beste lau aldiz etorri dira gurera hemengo gizartea ezagutzera eta hango berri ematera.

Hainbat eta hainbat proiektu ikustera eta beraien beharrak ikustera joan gara oraingo honetan. Bestetik handik eta hemendik dirulaguntzak lortu ditugu eta bertatik bertara nola eta zertan inbertitu zitekeen ikustera joan gara.

Eskolako gastuei aurre egiteko badute terreno batzuek landaketa eremu direnak. Malin urtean hiru hilabetetan egiten du euria, beste urtaroak oso lehorrak dira. Euria egiten duenean, lehor dagoen lur ugari aurretik eramaten ditu urak. Izan ere, jendeak jango badu, sua behar du eta su hori zuhaitzak moztuz lortzen dute, desertifikazioa areagotuz. Eskola honetako landaketa eremuarekin zuhaitzak mozteaz gain, landatzea ere garrantzitsua dela kontzientziatu nahi dute jendea.

Eurite garaia ez denean, ura lurrazpitik atera behar izaten dute. Ura ateratzeko eta bideratzeko sistema konplexua egiten ari dira, eta horretan ere, ahal dugunean laguntzen dugu. Horrez gain ordea, beste behar ugari dute: argi-indarra generadore batekin dute, baina arazo asko ematen du. Hozkailu bat ere behar dute gauzak mantentzeko, gelak zaharkituak daude,…

Bizimodu desberdina

Mali eta Euskal Herria ezin dira alderatu. Eskolatzeari dagokionez, beste pentsaera bat dago. Hango pentsaera, ahalik eta une gehien edukitzea da. Lana egin dezaten. Ikasketek ez dute garrantzirik eta hori aldatzea zaila da. Horretan ari dira han dauden misiolari eta bolontdresak. Pentsaeraz gain, azpiegitura aldetik ere aldaketa izugarria da. Herri txikietan ez dago errepiderikere, sekulako distantziak daude eta horregatik dira beharrezkoak barnetegiak.

Hala ere, gu bezain zoriontsu bizi direla esango nuke. Edozer gauzarekin konformatzen dira, futbol partidu bat antolatzea jada sekulako festa da.

Etorkizuna

Inmigrazio handia dago batez ere Senegalen mugan dauden lurraldeetan, besteek urrutiago dute kosta. Halere, guztiak ohartzen dira zerbait egin behar dutela gazteak bertan gelditzeko, azken finean, lana sortzeko. Horretarako institutua, irakasle eskola, eta ikasleen egoitza martxan jarri dituzte, baina mila proiektu gehiago dago egiteko. Joaten garen bakoitzean hainbat proiekturekin itzultzen gara. ■

Eremua:
1.240.192 km2 (%2a soilik landu daiteke urte guztian).

Biztanleak:
11 milioi (%46,15 urtetik beherakoak).

Bizi itxaropena:
46 urte (munduko herririk pobreenetakoa da).

Haurren hilkortasun tasa:
mila haurretatik 159.

Alfabetatze maila:
gizonezkoak %31, emakumezkoak %15.

Ekonomia:
%80 nekazaritzan eta arrantzan oinarritua.

Esportaziorako gaiak:
kotoia eta urrea

MARI JOSE SANCHEZ PLAZA, IDAZKARI OHIA

Mendi lurren inguruko gogoeta

Hainbat izan zarete Udaletxera gerturatutakoak Alkizako mendietan zehar dituzuen lursailengatik galdetuz. Katastroko plano zaharkituetan begiratu eta non ote dauden kokatuta asmatu nahiean ibili gara behin eta berriz.

Badira oraindik Ernio azpiko Alkizako mendi eta zelaiak batetik bestera ezagutzen dituztenak, baina beste herrietan gertatzen ari den bezala ezagutza horiek galtzen ari dira, behar bada beste batzuen trukean, baina ezin uka liteke etorkizun hurbil batean sailak galduta geratzeko arriskua dagoela. Aitonak bazekien non aurkitzen ziren diote batzuek, baina badakizu denborarekin … . Garai batean aberastasunaren zeinu izandako lurrak dira gaurko egunean hainbat buruhauste dakartzatenak eta txukun mantendu nahia karga bat bihurtu da bere jabeentzat.

Urtetik urtera garaiz eta behar bezala landa ondasunen gaineko zerga edo ezagunagoa zen rustikako zerga ordaintzen duten herritarrek Udaletxeari galdetzen diote mendietan dauden lursailen kokapenaren berri. Udalak aldiz zerga ikuspuntu hutsetik jasotako informazioa du, katastroko planoetan azaltzen dena, eta ez du inolako zeresanik partikularren jabetza eskubidearen eremuan.

Aurreko hausnarketen inguruan, landa-lurrekin zerikusia duen gai bat aztertu nahi nuke oraingoan, Alkizarrontzat interesgarria izan daitekeela uste baitut. Udaletxean eman nituen bi urteetan herritar batek baino gehiagok kontsulta egin zuen mendi-lurrak banatzeko edo segregatzeko aukerari buruz eta ondorengo lerroetan gai honi buruz lege eta arauetan jasotakoak azaldu nahi nituzke.

Hirigintza partzelazioa edo segregazioa deritzanak ondorengo egintzari egiten dio erreferentzia: Erregistroko unitate edo finka batetik azalera zati bat banatzea erregistroko unitate edo finka berri bat sortuz.

Segregazio egintzak bai lur hiritarrean (urbanoan) zein lur hiritarezinean (rustikoan) burutu daitezke. Aurreneko kasuan herriko planeamenduko arauek lursail horietarako aurreikusitako antolamendua aintzat hartu behar da. Lur hiritarezineko sailetan aldiz, lege eta arauek ipinitako mugak errespetatu beharko dira, hurrengoak hain zuzen ere:

1.- Laborantzako gutxieneko unitatea

Landa eremuko lursail batek eduki beharreko gutxieneko azalera da nekazaritzako jardueraren ikuspuntutik. Erkidego Autonomo bakoitzak finkatzen du zenbatekoa behar duen izan laborantzako gutxieneko unitateak eduki beharreko azalera, bai ureztatutako zein lehorreko lursailentzat.

Eusko Jaurlaritzak 168/1997 Dekretuaren bidez Gipuzkoan gutxieneko unitateak hektarea batekoa, hots, 10.000 metrotakoa, behar zuela izan arautu zuen, bai ureztatutako zein lehorreko lursailentzat. Bizkaian aldiz 7.500 metrotan dago finkatuta eta Araban hektarea batetik hiru hektarea bitartean, eskualde bakoitzaren arabera.

Landa eremuko lursail bat banatu ahal izateko laborantzako gutxieneko unitatea errespetatu beharra dago, hau da, jatorrizko sailak eta sortuko diren sail berriek ere gutxienez 10.000 metrotako azalera eduki beharko dute. Beste modu batean esanda, Udalak ezingo ditu baimendu laborantzako gutxieneko unitatea errespetatzen ez duen lursailen segregaziorik. Udala legeak aurreikusitako baldintzetara lotetsita dago herritarrek egindako segregazio eskaerak onartu edo ukatzeko garaian.

Herriko planeamenduko arauek lursailek eduki beharreko gutxieneko azaleraren araua zorroztu dezakete azalera handiago bat eskatuz, baina inola ere ez salbuetsi. Alkizako Planeamenduko Arau Subsidiarioek esaterako, baserriarekin mantendu beharreko gutxieneko sailak bi hektareatakoak behar dutela aurreikusten dute.

2.- Salbuespenak

Edozein araurekin gertatu ohi den bezala, laborantzako gutxieneko unitatearen arauak baditu bere salbuespenak, hurrengoak dira hain zuzen ere:

· Landa unitate edo finka bati azalera zati bat kentzeko aukera dago, nahiz azken honek gutxieneko unitatearen hedadura ez izan, baldin eta ondoan dagoen sailari eransten bazaio eta azken honek 10.000 metrotako azalera eskuratzen baldin badu.

· Banaketaren ondorioz sortuko den sail berriak ez du laborantzako gutxieneko unitatearen azalera eduki beharrik izango, baldin eta eraikuntza iraunkor bat jasotzera bideratzen baldin bada, nekazaritza, industria zein bestelako erabilera izango duena eta, beti ere, hirigintza legediak eskatutako baimen guztiak eskuratu baldin badira bere eraikitzerako.

· Landa-lurraren banaketa eskatzen

denean beste batek bere jabetzakoak diren sailetara sartzeko duen eskubidearen egikaritzaren ondorioz.

· Nahitaezko desjabetzapen (expropiación) baten ondorioz gertatzen denean.

3.- Prozedura

Hirigintza partzelazioa edo segregazioa egiteko jarraitu beharreko prozedura ondorengoa da:

Lehenik eta behin, segregazio baimena lursailak kokatuta dauden herriaren Udaletxean eskatu behar da. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira sailen jabetza agiriak edo eskriturak, lursail berrien azalera, deskribapena eta mugak jasoko dituen agiria, eta ahal baldin bada plano bat.

Behin udal baimena eskuratuta segregazioa Notario aurrean formalizatu beharko da dokumentu publikoan.

Azkenik, eskritura Jabetza Erregistroan inskribatu beharko da eta ondoren eskrituraren kopia bat Udaletxean aurkeztu.

4.- Atzera egiteko eskubidea

Laborantzako gutxieneko unitatera iristen ez diren lursailak, hau da 10.000 metrotatik beherakoak direnak, besterendu edo saldu nahi direnean lehentasunez eskuratu edo erosteko eskubidea izango dute sail horien ondoan dauden lurren jabeek.

Azken horiek bat baino gehiago direnean 10.000 metro baino azalera handiagoa duten sailen jabeek edukiko dute eskubidea, eta azken talde honen barruan azalera txikiena duen sailaren jabeak.

Atzera egiteko eskubidearen egikaritzaren ondorioz lursail bat eskuratzen badin bada, ezingo da 6 urteetan besterendu edo saldu.

5.- Zer egin liteke landa eremuko lursail bat legez banatu ezina denean?

Adibide bat jartzearren, horrelako egoera baten aurrean aurkitu gintezke jaraunspen (herencia) bat oinordeko (heredero) ezberdinen artean banatu behar denean.

Egoera honetan ondasuna, lursaila, banatu ezin denez, oinordeko guztien izenean mantentzeko aukera legoke nahiz eta azalera zati bakoitzaren erabilera pribatiboa banatu, jabetza horizontaleko araubidearen bitartez.

Egungo legediak sailak banatzeari ipinitako mugak duten helburua landalurrak gehiegi ez zatitzea da, sortzen diren lursail berriek hedadura oso txikia edukiko luketelako eta erabilgaitzak eta denboraren eraginez topaezinak bihurtuko liratekelako.

ANTONIO SORARRAIN

Unax eta Manex izenak

Manex Sorarrain

Unax Garmendia

UNAX

Aizu, Unax izenak ba al du itzulpenik? Zer esan nai du Unax izenak?, galdetu zidan Unax Garmendia Aranagaren amak.

Unax au Gorka Garmendia eta Nerea Aranagaren seme zarrena da. Azpeitian jaio zan 2003.eko apirillaren 20an. Nerea Aranaga Arrasateko Bastida akademian Informatika-irakasle zala ezagutu nuan. Andik puska batera posta elektronikoa biali nion eta, besteak beste, au gogoratzen nion: "esan nizun saiatuko nitzala itz orrek, Unax-ek, erderazko edo euskerazko itzulpenik ba ote duan ala ez jakiten". Eta apunte auek bidali nizkion Unax izenari buruz.

- **UNAX**. "Euskal izendegi bateratua". Idazlea Urtzi Ihitza Sainz. Argitaldea Ena (Euskal Nortasun Elkartea). 1999, 198 or. Unax apirillaren 27a. Beste ezer ez du jartzen. Pentsatzen jarri naiz ea Unax santu euskaldun frantsesen bat ez ote dan. Ziur, ez; ez da orrelakorik.
- **UNAX.** "Enciclopedia general ilustrada del País Vasco". Vol.XLVIII, pág.398. Unax nombre personal vasco ipintzen du. Liburu ortantxe ortxe bertan beste au; Unaya. Unaya apodo o apellido vasco del siglo XIV. **Significado** "el boyero",. "el pastor".
- **UNAX.** Euskaltzaindiak, 1996an egin zuen " Nomenclator euskérico de nombres de pila" izeneko lehen zerrendako lan hartan azaltzen zaigun izen bat dugu Unax. (Euskal izenak. Mikel Hoyos. Lizarraga S.L. Lizarra (Nafarroa, 1998,182 or.).
- **ARTEZ** enpresaren mai-gañeko takoak 2004ko apirillaren 27an auxe jartzen du: "2004/ apirilak. 27/asteartea/. Monserrateko Andra Maria. Unax". Seguruenik, artikulu onen asieran aipatu deten Urtzi Ihitza

Sainz-en iztegia gogoan izanik, jarriko zuten egun ortan UNAX.

Azkue, R.Mª iztegia. Unax ez da ikusten iztegi ortan. Bai ordea, unai, unaigo, unaska. Azkue, R.Mª iztegia. Unax ez da ikusten iztegi ortan. Bai ordea, unai, unaigo,unaska.

On Emeterio Sorazu Ugartemendia antropologia erlijiosoan espezializatua da. 18 liburutik gora argitaratutako getariar onen iritzia ere eskuetan det. Apaiz jakintsu onen ustez, Unax Ipar Euskal Erriko euskal itza da eta "**pozo de agua" edo "laguna"** esan nai du. 2004.eko maiatzaren 19an bialdu nion eskea eta aste artan bertan, eskuz idatzirik, eman zidan bere iritzi txit estimatua. Milla esker, On Emeterio jauna.

Nerea, ikusten dezunez, Auñamendikoen ustez, UNAX **boyero** edo **pastor** izango litzake eta On Emeterio jaunaren esanetan, berriz, **"**pozo de gua**"** edo **"**laguna**".** Unax-en itzulpena nai zenduan. Orratx bi ikuspuntu. Nik uste Unax "Unai" itzaren txikigarriak (TXO atzizkiak) sortu zuala. Ego Euskadin TXO atzizkiak amatxo, Josetxo, Ramontxo, aitatxo, Maritxu, Josetxu... sortzen dituan bezelaxe, Ipar Euskadin Unai-tik Unax etorri zan. Unai ori "TXO" atzizkiaren eragiñez Unax biurtu zan. (Ikus Euskal Gramatika osoa. Ilari Zubiri, 288. or.). Beraz, Unax euskeraz **artzaitxo** dala esango nuke eta erderaz **pastorcillo.**

MANEX

Pello Sorarrain eta Mentxu (Mari Karmen) Agirrezabala nere illoben seme batek Manex du izena. Gizonezko izen berezi onekin, au da, Manex-ekin asi aurretik, itz arrunt oni berari (sustantibuari) buruz bi gauzatxo.

"En consecuencia, las gentes de Soule han creado el vocablo abstracto en cuestión para encuadrar dentro de una triste uniformidad a todos cuantos no sean ellos. Quien dice *manex*, dice no suletino, como provinciano significa no-parisino y extranjero no-francés" (Ser Vasco. Jean Haritschelhar.1986, pág.10). Eta gero beste au: "Los suletinos que llaman "*manex*" a los vascos de las provincias vecinas les pagan con la misma moneda, como atestigua este diálogo entre dos hombres de Aroue:

" – Bazena jente Donaphaleuko merkatian?
" – Jente güti, *manex* hoitarik parrasta bat".

" Había mucha gente en el mercado de Saint-Palais?
" Poca gente, una caterva de "manex". (Idem pág.110).

Manex itz arrunta (sustantibua) eta Manex itz berezia bi kontzeptu desberdiñak dira MANEX. Xuberotarrak Lapurdiko eta Behenaparreko euskaldunei ematen dieten izengoitia (Euskal hiztegi modernoa euskara – espainiera, espainiera - euskara 1976. Egilleak Xabier Kintana eta Joseba Tobar) MANEXINA. Sulekoak Lapurdiko eta Behenaparreko emakume euskaldunei ematen dieten izengoitia.(Ikus hiztegi modernoa).

"MANEX: **Manez. Joanes. Iparraldeko izena.** Zuberotarrek manexak deitzen dituzte Iparraldeko beste guztiok, benetako euskaldunak eurok bakarrik izango bailiran".(Aipaturiko Euskal izendegi bateratua. Urtzi Ihitza Sainz. 1999, 151.or.).

Goazen orain Manex gizonezko itz berezi onen billa nere apunteetara. Ara.

- Aipaturiko gure tarteko Manex Sorarrain Agirrezabala Tolosan jaio zan. Data: 2000.eko abuztuaren 23a.
- Aita semea erroldatzera joan zanean, Tolosako errejistro Zibillean ez zion iñolako zailtasunik jarri bertako Idazkariak. Aita joan zan izena ematera eta normaltzat bezela artu zuten izena. Nere illobak berak esan zidan.Ustegabekorik ez zan izan Tolosan.
- Erderazko Manuel gizon izena euskeraz Imanol, Manu da. (Diccionario euskérico y nombres vascos. Jaime de Kerexeta. Bilbao 1977, pág.122).

  Manu egoaldean oso ezaguna degu, iparraldean Manu ori Manex da. Ipar aldean gure

  "-TXO" ori "-X" biurtzen dute. Manex orren euskerazko itzulpena ManuelTXO izango litzake eta erderazkoa, berriz, ManuellTO. (Ikus aipatutako Ilari Zubiri, 288. or).
- MANEX. Manex orren euskerazko itzulpena JOANES da eta ekainaren 24an ospatzen da bere jaia. Ganix, Joanes, Jean, Marez, Manez eta abar, oiek danak izen bat dira. MANEXINA (Juanita). (Ikus Gran diccionatrio de los nombre de Persona. Equipo de Expertos 2100. Editorial de VECCHI. pág. 213).

  ELHUYAR hiztegia. Euskara-gaztelania Castellano-vasco. Caja Laboral. Euskadiko Kutxa-ren laguntzaz. Elhuyar kultur elkartea. Usurbil. 1996. 429 orria. Oiek diotenez, Manex "hipocorístico de Joanes" omen da, au da, aurtxoen izen JOANES ori , baino laztanki,biozki, esanda. Ego Euskadin JuanTxo edo JuanTXU edo Juanito esango bagendu bezela. Erderaz Juanito, Juanillo.(Neskatilla eta leiotilla ere neska eta leio itzen diminutiboak dira). Arrastotik atera gabe, Ipar Euskadin Manex mutilla bada, eta Manexina neska balitz. JOANNIS/JUAN izenak aldaera asko izan ditu: IBAN, JOAN, JOANEX, JOANI, JOANKO, JOANTO, JOANTTO, JOHAN, JOHANE, JOHAÑE, JOHANEX, JOHANIKOT, JOHANOT, JOHANTXE, JON, JUNES, MANEZ, MAÑEZ".

  Bitartean ondo izan eta ariyo.

AGURNE ETA IXIAR

50 urte atzera begira

Frontoiak aurten mende erdia beteko du

1957ko abenduaren 15a zen, neguaren atarian. Eguraldi makurra zen, goibela, euritsua. Zerua egun osoz lainoz estalia egon zen. Baina Alkizan ospakizun handia izan zen, egun hartan frontoia, kanposantura doan errepidea, eskolako eta maixuetxeko obrak... inauguratu zituzten. Garai hartan urtero herri bat izendatzen zuen Diputazioak "pueblo adoptado" eta Alkizak horregatik izan zuen Diputazioaren diru laguntza berezia eskatutako obrak egiteko. Garai hartan herriko alkatea Etxabeko Rufino zen eta zinegotziak Garaikoetxeko Juan C. Urruzola eta Altzorbeko Anastasio Alberdi.

Herria bezperan bereziki dotoretu omen zuten hurrengo eguneko ospakizunerako; ongi-etorria emateko bi arku; bata kanposantura doan bidean eta bestea plazako sarreran. Azken honetan "Bienvenidos" hitzarekin ongi-etorria adierazi nahi zioten etorriko zen kanpotar andanari. Badakigu garai hartan "Errejimenak" euskara nola baztertzen zuen eta Alkizan hain herri euskalduna izanik , gazteleraz idatzi zuten "pankarta".

Goizean etengabeko suzirien tiroek iragarri zuten festaren hasiera, ondoren ongi-etorria egin zitzaien bertaratu ziren agintariei: Gobernadore Zibila, Diputazioko Lehendakaria, Apezpikua, Tolosaldeko alkateak, guztira 39, eta garai hartako beste hainbat kargu eta teknikari publiko. Gero Parrokian meza herriko seme D.Julian Legarrak eman zuen. Mezaren ondoren "sequito"guztia garai hartan sakristian zegoen Bengoetxearen erretaula ikustera joan zen.

Egindako obrak inauguratzeko unea iritsi zen; Apezpikuak lehenik kanposantuko errepidea bedeinkatu zuen, ondoren, maisu-maistren etxe-bizitzak, eskola, plaza eta azkenik frontoia.

Ordu batean pilota partidu ikusgarria izan zen: Atano III.a eta Atano VII.a, Atano X.a eta IX.ren aurka. Azken hauek irabazi omen zuten 22-17. Partidu hartan Atano txapeldun ezagunak, eta bere ondorengoak; hau da ilobak jokatu zuten. Ondoren, agintariek Udaletxeara joan ziren; Diputazioko Lehendakariak egindako obrak herriari eman zizkion. Ondoren, herriko alkateak erantzun zion udaletxe eta herriko egoera azalduz eta eskerrak emanaz.

Gero agintariak Alkizako ostatuan nahiko lekurik ez, eta Asteasuko Albino jatetxera bazkaltzera joan ziren. Otordua Diputazioaren kontura izan omen zen. Herritarrei herriko tabernetan hamaiketakoa eman zieten. Horrez gain, eguna girotzeko, Lazkaoko txistulariek eta soinujoleek etengabe bere tresnak joaz herritarren belarriak gozatu zituzten.

Herritar asko gogoratuko dira egun hartaz, hona hemen Maitegiko Martin eta Lurdesen oroitzapenak.

Zer gogoratzen duzu frontoiaren inaugurazioaz?

Jende ugari izan zen ospakizunean, pilotariak ere agertu ziren, festa handia izan zen, txistulariak, dantzariak... Garai hartako pilotaririk onenak ere inguratu ziren: Atano III... Frontoia eta errepide berria batera inauguratu ziren.

Noiz hasi ziren frontoia egiten?

Hasi eta jarraian egin zuten. Hasieran atzeko aldea irekia zuen, pilotak atzeko sorora alde egiten zutenez, gerora itxi egin zuten, atzeko zati hori erantsiz.

Zuek frontoia egin aurretik non ibiltzen zineten pilotan?

Frontoi zaharra elizaren ondoan zegoen, eliza eta Katalandegi tartean. Herritarren artean "afizio" handia zegoen eta asko jokatzen zuten bertan. Herrian baziren pilotari ezagunak: Arregik erremontean jokatzen zuen, Kasto, Eusebio, Jabier eta Joan Joxek, berriz, esku-pilotan. Arazoa igande goizetan sortzen zen, elizan meza izaten zelako debekatu egin zuten jokatzea. Pilota, askotan, apaizaren sorora joaten zen, eta komerietan ibiltzen ginen jasotzeko garaian, apaiza zorrotza baitzen! Neskak eta mutilak elkarrekin jokoan ikusiz gero haserretu egiten zen, garai hartako apaiza zen!

Zer suposatu zuen frontoi berriak?

Inguruko herrietan ez zen frontoi estalirik, horregatik beste herrietatik jende asko etortzen zen frontoian jokatzera. Jokatzeko txanda itxaron behar izaten zuten, gauez ere jendea izaten zenez argia piztu ahal izateko ostatuan ordaintzen zuten. Herrian zaletasun handia zen, etengabe ibiltzen ziren; Arritzako Juan Joxe, Intxaur Handiko Manuel Mª, Pantaleon...elkarren arteko partiduak jokatuz, eta beste batzuetan Tolosako ospetsua zen Trabasana ere etortzen zen. Askotan euren artean afaria jokatzen zuten. Frontoiaren pareta markatzen hasi zenean, pala, zesto, erremonte edo fuerte jotzen zuten pilotaz jokatzea debekatu egin zuten, eta bazen hori adierazten zuen txartel bat. Herrirako ere toki estali bat izatea oso aprobetxagarria gertatu zen; euria egiten zuenean, festak eta ospakizunak bertan izaten ziren.

Inguruko herriak nolako frontoiak zituzten?

Estalirik gabeko frontoiak ziren, inguruko frontoi estalia Tolosan zegoen. Hori dela eta, gu herritarrok harro geunden gure frontoiarekin! Gure ustez ederra eta dotorea zen! Hala ere, eskailerak edadekoentzat egokiak ez zirela eta kexak entzuten ziren.

Frontoi dotore hura zaharkituta gelditu ote da?

Bai, argia motel xamarra, paretak estropeatuta; pilota ikusteko garaian hauek asko oztopatzen dute; tetxo zatia ere ia erorian dauka, zorua ere irristatzen dela; ura sartzen baita...

Gaur egungo frontoiaren egoera

Urteak ez dira alperrik pasatzen!! Eta 50 nabarmen!!

Orduko frontoi berri eta estimatuaren egoera gaur zertan den ikusirik, frontoia erabiltzen duten herriko erakundeetara eta udaletxera jo dugu haien iritzia jakiteko asmoz.

Hona hemen hauekin izan ditugun elkarrizketak:

Luis Mari Sorarrain (Erniope Pilota Elkarteko arduraduna)

Zer erabilera ematen diozue gaur egun frontoiari?

Frontoia erabiltzen dugu entrenamenduetarako eta herri arteko txapelketetarako. Gure klubak Gipuzkoako txapelketetan parte hartzen baitu. Eguraldi txarra egiten duenean Adunara joaten gara jokatzera, hemen busti egiten baita frontoia. Entrenamenduak asteazkenetan egiten ditugu, eta gero aste bukaeretan partiduak.

Gaur egun zein hutsune edo gabeziekin aurkitzen zarete?

Frontoiaren baldintzak oso txarrak dira; oso zaharkiturik dago. Aldagelarik gabe ere gelditu gara eta jokalariak, ba, ahal duten bezala ibiltzen dira aldatzen, modu txarrean.

Neurrikoa izatea garrantzitsua al da?

Bai, gure frontoia bai luzeran eta baita ere zabaleran neurri ofizialak dioen baino motzagoa da; luzeran gutxi gora behera lau metro falta ditu, erremontean aritzeko bost eta zabaleran metro erdi, kantxa eta kontrakantxa. Txapa ere horrexegatik beherago gelditzen da, metroko altuera hartuz. Txapelketetarako prestatzen aritzen diren pilotariak, neurriko frontoietara joaten direnean jokatzera, ohitu egin behar izaten dute, honek desabantaila ekarriz. Handian ohituta dagoenarentzat, berriz,hau kategorikoa egiten zaio, erreza! Honek duen gauzarik ederrena frontisa da, dena berdin-berdina, oraingoak ez dute hori lortzen. Hau bota gabe gelditzea onena, zabaldu, eta ez du ematen ezinezkoa denik.

Zein hobekuntza proposatzen duzu?

Nik aspaldi frontoi honi portxe bat egingo nion, orain dauden kristal motekin, argia ondo sartzen den bat jarri eta alde handia egingo lioke.

Berritzekotan, dena bota eta bertan behar den bezalakoa egitea proposatuko nuke. Neurritan zabaltzeko, ezkerraldera pareta karretera aldera eramatea posible dirudi, baina hori arkitektoen lana da!

"Eguraldi txarra egiten duenean Adunara joten gara jokatzera, hemen busti egiten baita frontoia"

Frontoia beste alde batean egitekotan, ez egitea hobe dela iruditzen zait, plazatik kanpo zein joango litzake? Hor bertan elegante geldituko litzake, gorde gordean, ezkutuan, pixka behera sartu eta hor dagoenik ere antz ematen ez dela, erabat estetikoa, bertara joan arte ez zara konturatzen frontoia dagoenik. Oraingo berri gehientsuenak, lau pareta zuzen trakets besterik ez dira, nahiz batzuk badira txukunak gelditu direnak, Albizturkoa adibidez itxuraz polita ikusten da eta sakoneran gelditzen da, hala ere neurritan motxa egin zuten.

Frontoi berrietan gradan azpian gelditzen den lekua aprobetxatzen dute bulegoak, aldagelak, dutxak, materiala jasotzeko…

Eskolakoak

Zein erabilera ematen diozue gaur egun frontoiari?

Frontoia guretzat, euria egiten duenean aterpetzat hartzen dugu, bertan jolas garaietan ibiltzen gara. Soinketa arloa lantzeko, zenbait joko egin eta dantzak ikasteko ere erabiltzen dugu. Gu frontoirik gabe motz geldituko ginateke.

Gaur egun zein hutsune edo gabezi aurkitzen diozue?

Frontoia busti egiten da, irristakora geldituz. Kanaletak bete egiten dira eta ez dute bere egin beharra betetzen, alderantziz, errekatxoak bihurtzen dira eta putzuak sortzen dituzte. Sabaia puskatuta dago eta erortzeko arriskua ikusten diogu. Eskailerak ere puskatuta daude eta ume txikiekin jaisterakoan beldurrez ibiltzen gara.

Bere egoera ikusirik zein hobekuntza proposatuko zenukete?

Guretzat nahikoa izango litzateke sabaia, eskailerak eta kanaletak konpontzea eta nolabait urik ez sartzeko aurreko aldean zerbait jarri edo ixtea. Pintatuz gero alaitasun handia hartuko luke!

Joxe Mari Aranzabe (Udaleko zinegotzia)

Iraungo al ditu frontoiak beste 50 urte?

Honek behintzat ez. Gure asmoa hau bota eta bertan berria egitekoa da. Neurriz luzatu eta zabaltzeko asmoa dugu, pilotarako legezko neurriak izan ditzan.

Bertako tokiak ematen al du neurrikoa egiteko?

Zirriborro batzuk egiten aritu gara, baina oraindik proiektua osatzeko dago, horretan ari gara. Dirudienez ematen du, Repsoleko bonbona hortik kendu beharko genuke zabaltzeko eta atzeko aldera ere badago tokia.

Dutxen arazoei aurre egiteko asmorik ba al da ?

Lehen aipatu bezala oraindik proiektua egiteko dago, baina intentzioa badugu bertan dutxak eta aldagelak kokatzeko, dudarik gabe honi emango diogu lehentasuna. Gimnasioa ere bertan egiteko aukera aztertuko dugu. Ahal den frontoirik osatuena egiten saiatuko gara.

Nolako itxura izango du?

Plazatik begira saiatuko gara antzeko zerbait egiten, dagoen arkua mantentzen, baina frontisa ziurrenik bota eta berria eraiki beharko dugula uste dugu, hau bai altueran eta bai zabaleran motz geratzen baita, hala ere, baloratzen dugu duen marmol gorria, eta mantentzea aztertuko dugu. Oraindik ez dakigu, zirriborrotan baikabiltza, hasi besterik ez gara egin eta!. Baina ziur ez dela orain bezala bustiko!! Dakiguna da, atzetik atea izango duela, frontoian egin daitezkeen ekintzetarako behar diren tresnak eskura izateko.

"Gure asmoa frontoi hau bota eta bertan berria egitekoa da"

Frontoi hau 500.000 pezeta kostatu omen zen, garai hartan asko izango zen, gaur ere asko beharko da ezta?

Garai hartan dirutza zen, gaur egun gutxi gora behera 100.000.000 pezeta beharko direla pentsatzen dugu. Hori lortzeko, lehenik jo behar dugun atea Gipuzkoako Aldundiarena izango da, orain dela 12 urte ere jo genuen, Arritxu Marañon arduradun zegoenean, Fernando Tapiarekin ere bilduta egon ginen, baina garai hartan ezezkoa eman ziguten. Aldundia osatu bezain azkar asmoa dugu berriro jarduteko. Hemen ez badugu lortzen Eusko Jaurlaritzara edo Europako laguntzetara bideratuko dugu eskaera. Nonbaitetik zirrikituren bat bilatzen saiatuko gara, espero dugu batetik edo bestetik lortzea.

INAKI IRAZABALBEITIA

Gure piztiak

Azkonarra (Meles meles)

Animalia handia eta ugaria izanik ere, oso zaila da aurrez aurre ikustea. Tabernaren batean ikusitako ale disekaturen bat aparte lagata, behin baino ez dut bertatik bertara ikusi: iaz Anoetako bideak auto batek hilda. Inpresioa sortzen du. Txakur baten tamaina har dezake, 80 cm-ko luzera bitartean. Altua ez da oso, ordea, hankak motzak dituelako. Behin ikusita, hala ere, ez duzu inoiz ahaztuko, begien zehar buruaren ilaje zuriaren gainean dituen bi marra beltzek zorroz mozorrotutakoa baten itxura ematen diote.

Azkonarra mustelidoen familiakoa da, erbinudea edo lepazuria bezala. Horiek bezala gauez ibiltzen da eta egunez lurrean eginiko zuloetan ezkutatzen da. Omniboroa da, hots, denetarik jaten du lurpeko animaliak (zizareak, intsektuak eta narrasti txikiak) eta landareak jaten ditu nagusiki. Baso zikina eta sastrakak ditu gogoko eta horietako gero eta gehiago dago gure inguruan. Beraz ugaria izatea ez da harritzekoa jatena eta ezkutalekua eskura baititu gure mendietan.

Emeak otsailean edo martxoan umatzen dira eta normalean 3-4 kume izaten dituzte. Hamalau hilabeterekin heldutasun sexuala erdiesten dute. Taldetan bizi dira eta beren lurpeko bizilekuak handian eta konplexuak izan daitezke. Ingalaterran indusitako batek 879 m-ko galeriak, 50 gela eta 178 sarbide zituen.

Suge gorbataduna
© Elhuyar Fundazioa

Suge gorbataduna (Natrix natrix)

Jende askok sugeak ez ditu gogoko, gaiztotzat eta arriskutsutzat jotzen ditu eta ikusi orduko akabatu nahi izaten ditu. Gure artean suge arriskutsu bakarra sugegorria da, gainerako guztiak gizakiontzat arriskurik gabeak direlarik. Horrelako da gaur hona dakargun sugea. Kolore ilunekoa izaten du sorbalda eta argiagoa sabelaldea. Lepo aldean kolore hori edo zuriko koilarea izaten du, bereziki nabarmena ale gazteetan.

Ikusitakoan beldurra eragin dezake, metro eta erdiko luzera bitartean izan dezakeelako. Ez izan beldurrik, dena den! Ez da pozoitsua, baina harrapatuz gero ustekabe ezatsegina izango duzu, oso usain txarra jariatzen duten guruinak baititu.

Euskal Herrian arrunta da. Lehorrekoa izanik ere, uraren inguruan bizi da. Neguan hotz handia eginez gero, hibernatu egiten du. Emeek udaberrian arrautzak erruten dituzte eta oso gogoko izaten dituzte simaurra edo usteltzen ari diren landare-piloak toki beroak direlako. Kumeak handik 7-8 asteetara jaiotzen dira. Suge gorbatadunek anfibioak (igelak, uhandreak eta apoak) eta ugaztun txikiak (saguak eta satitsuak) jaten dituzte. Baserritarren laguntzaileak dira beraz. Etsaien artean gizakiaz aparte, gorago aipatu dugun azkonarra dute.

Azkonarra gautarra da
© R. A. Hill

Azkonarraren oin-arrastoak © Elhuyar Fundazioa

AURKIBIDEA

Oilategitik

www.oilategitik.net

Datorren urtera arte!

Alkizako Udala

AURKIBIDEA